


arteka



**KAPITALISTEN
GERRA**

GEDAR



EKIDaren murla Aranan (Gasteiz), gerra inperialistaren aurka

Gizarte kapitalistan, gerra ez da istripu bat, ez eta gehiegikeria bat ere: araua da. Haren jatorrian ez dago ez kulturen arteko talkarik, ez herrialdeen arteko desadostasunik. Aberastasuna metatzen jarraitzeko bide bat da, kanoikadaz kanoikada, metaketa hori merkataritza arruntaren bidez lortzea ezinezko bihurtzen denean. Gainerakoek hondoa jo dutenean funtzionatzen jarraitzen duen negozio bat da. Gerra, bereziki bizi dugun fase inperialista honetan, airea bezain beharrezkoa da kapitalistentzat. Horregatik, zenbaki honetan, gai honen funtsezko hiru alderdi aztertuko ditugu: gaur egungo gerraren nolakotasuna, gerrak sortzen duen negozioaren dimentsioak, eta gerra kapitalistak tradizio sozialistan izan duen trataera.

Edukia

06 Kapital militar pribatuaren arkitektura

Manex Lopez

30 Estatu inperialista garaikideen funtzioa gerra kapitalistan

Manex Lopez

50 Gerra garaikidea eta delegazio gerren mugak

Danel Errazu

68 Gerra: posizio eta teoria sozialista, XIX. mendetik XX. mendera igarotzean

Aimar Nuñez

06



30



50



68



KAPITAL MILITAR PRIBATUAREN ARKITEKTURA

Testua — **Manex Lopez**



Krisi garaian, beste sektore batzuk erreprodukziorako beharrezko irabazitasak mantentzeko gai ez diren bitartean, sektore militarra posizio pribilegiatuan geratzen da. Izan ere, hala estatuek, nola kapital pribatuek sektore horretara jotzen dute

1. NOLA JOKATZEN DU INDUSTRIA MILITARRAK?

Sektore militarrekin lotutako merkatuak, nahiz eta kapitalaren oinarrizko dinamikatik ez diren inolaz urruntzen –eta gainera, jarraian ikusiko den gisa, muturrera arte erreproduzitzen dituzten– beste sektoretan aurkitzen zailak diren baldintza bereziak dituzte. Portaera ezohiko hori kontratista nagusiek jasaten duten monoponio egoeratik dator, batez ere, sektoreak duen garrantzia estrategikoaren ondorioz. Horrela, krisi garaian beste sektore batzuk erreprodukziorako beharrezko irabazi-tasak mantentzeko gai ez diren bitartean, sektore militarra posizio pribilegiatuan geratzen da. Izan ere, hala estatuek, nola kapital pribatuek sektore horretara jotzen dute.

2024 urtean, munduko gastu militarrek %9,4 egin zuen gora urtebetean. Estatu Batuetan 80ko hamarkadako lehen urteetatik igoera handiena izan zen. Garai horretan, Reagan buru zen eta bi urtean defentsa gastuak ia %50 handitu ziren. Gorakada berri horrekin, eta aurreko urtearekin alderatuta %2,5eko beste igoerarekin, mundu mailako gastu militarra 2,718 bilioi dolarrekoa izan zen 2025ean. Kapital-injekzio horren ondorioz, munduko karga militarrek, batez beste, munduko Barne Produktu Gordinaren (BPG) %2,5 gainditu zuen. Bolumen oso horretatik, Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeko (NATO) 32 estatu kideek 1,506 bilioi dolar bildu zituzten; hau da, planeta osoko gastu militar guztiaren %55 inguru.

Baliabideen mobilizazio zabal horren erdigunean, enpresa pribatu gutxi batzuen esku dagoen industria dago, kapital publiko zein pribatuekin finantzatua. Krisi kapitalista garaian gerraren industria zein errentagarria eta irabazizkoa den ikusteko, ez dago Stockholmeko Bakerako Ikerketarako Nazioarteko Institutuaren (SIPRI) datuei begiratzea besterik; izan ere, sektoreko 100 enpresa nagusien –sektoreko merkatu-kapitalizazioaren %95eraino bereganatzen dutela kalkulatzeko– armen salmentagatik eta zerbitzu militarrengatik diru-sarrera agregatuak 679.000 milioi dolarreko errekor historikora iritsi ziren 2024an. Horrela, azken hamarkadan %26ko hazkunde erreala sendotu zuten.

Sektoreko irabazien igoera handiaren kausa batzuk (zenbait askoren artean) honako hauek dira: Alemanian, zor nazionala etetearen bitartez onartzen da berrarmatze militarretarako 100.000 milioi euroko funts berezia. Horren ifrentzua dugu estatuak, presio demografiko gero eta handiagoaren pean, programa sozial eta osasun-programetara funts publikoen %58 bideratu behar izatea. Israelen, Nagel Batzordeak gomendatutako igoera historikoei defentsa-aurrekontu garbia 2025eko BPGaren %5,2ra igo dutela; horrela, gastu zibilaren eta zerbitzu sozialen proportzio zuzena desplazatu da, bai eta gerra-kostuen ondorioz zorraren eta BPGaren arteko erlazioa %68,6ra igo.

Zifra horiek agerian uzten dute apustu argi bat dagoela; batetik, estatuen aldetik, euren ekonomia sustatzeko mekanismo estrategiko gisa, azken instantzian gerraren negozio moduan laburtu daitekeenaren bitartez; eta bestetik, finantza-sektoreko zein industria-sektoreko mota guztietako kapital pribatuen aldetik, epe labur, ertain eta luzean errentagarritasun ekonomikoa ateratzeko asmoz.

2. METODOLOGIA

Industria militarren sektore pribatuaren dimentsioa irudikatzeko, arreta berezia jarri da NATOk herrialdeek eta aliantzakoak ez diren aliatu estrategikoei (Israel, Japonia, Hego Korea eta Australia) osatzen duten esparruan, eta azken hazkunde aldiko zifrak aztertu dira (zehazki, 2014-2025 urteen artekoak).

Kapitalaren hedapenaren eta kontratu-esleipenen jarraipena taxonomia ekonomiko estandarizatuaren bidez egituratu da; nagusiki, Ipar Amerikako Industria Sailkapenerako Sistemako (NAICS) kodeak erabiliz. Arreta berezia jarri zaio 3364 kodeari (Produktu eta pieza aeroespazialen fabrikazioa) eta Industria Sailkapen Estandarreko Kodeei (SIC). Diru-sarrera agregatuei, aurrekontu subiranoei eta korporazioen kapital-esleipenei buruzko metrika finantzario guztiak 2024ko dolar estatubatuar (USD) konstanteetan aurkeztu dira, kanbio-tasen aldakortasunak eragindako distorsioak arintzeko. Armen nazioarteko transferentzia kuantifikatzeko, SIPRIren Joera Adierazlearen Balioa (TIV) erabili da, gobernuen baimen ofizialen balio finantzario nominalean osatuta.


3. GERRA-MERKATUAREN KUANTIFIKAZIOA

3.1 Diru-sarrera agregatuak eta garapena

Armagintza-industrian zuzenean eragiten duten erraldoiak aztertzean, nabarmentzen den lehen ezaugarria eredu bera da: monoponioak –edo, bestela, estu araututako oligoponio batek– definitutako eredu ekonomiko ezohiko baten pean jarduten du industriak. Horretan, estatua da arma-sistema amaituen erosle (ia) bakarra, enpresa militar pribatu batzuekin batera (PMC sigla ingelesekin ezaguna). Kontratazio publikoarekiko akoplamendu horrek, praktikan, “balio seguru” bihurtzen du sektorea, aurrekontu infinituek babestua; aldi berean, estatu-aparatu bat gehiago bihurtzen du orientazio estrategikoari dagokionez.

1. irudiak immunitate estrukturala erakusten du. Bertan, enpresa nagusien diru-sarreraren eta defentsa-gastuen arteko zuzeneko korrelazioa ikus daiteke; era berean, bi aldagai horiek independentzia handiagoz jokatzeko erakundea osatzen duten herrialdeen BPG globalarekiko. Izan ere, munduko 100 enpresa nagusien etekinen eta NATOren defentsa-gastuaren arteko korrelazio-maila alderatuz gero, 0,9539ko Pearson-en r -a lortzen da; horrek adierazten du bi joerek ia portaera bera dutela. Aldiz, NATOk herrialdeen BPGa defentsa-gastuarekin alderatzean, 0,8979ko balioak lortzen dira; horrek erakusten du badagoela korrelazio positiboa, baina ez aurreko kasuan bezain estua.

Kontratazio publikoarekiko akoplamenduak, praktikan, “balio seguru” bihurtzen du sektorea, aurrekontu infinituek babestua; aldi berean, estatu-aparatu bat gehiago bihurtzen du orientazio estrategikoari dagokionez



1. irudia. *Sektore militar pribatuko etekinen, NATOk herrialdeen defentsa-gastuaren eta haien BPGaren arteko konparazioa*

Horrek guztiak zera adierazten du: nazioarteko ekonomiak irabazi-tasaren beherakadari lotutako fluktuazioak eta beherakada sistemikoak jasan arren, armagintzako negozio-bolumenak etengabeko hedapenari eutsi diola gobernu atlantisten aurrekontuen eskutik. 1. taulan, aztertutako aldagai bakoitzaren balioak ere ikus daitezke, guztiak milaka milioi dolarretan.

Era berean, konparazio azkar baten bidez ikus daiteke 2024an *top 100*ak bereganatutako 679.000 milioi dolarrek adierazten dutela NATOren aurrekontu-militar osoaren (1,506 bilioi dolar) %45 inguru industria-oinarri pribatuaren erpinerantz bideratzen dela zuzenean.


*Top 100*eko enpresen barruko kontzentrazio-maila ere esanguratsua da. Industria-piramidearen muturrean kontratista nagusien oligarkia bat dago; horiek aurrekontu subiranoak banatzeko

NATOren aurrekontu-militar osoaren (1,506 bilioi dolar) %45 inguru industria-oinarri pribatuaren erpinerantz bideratzen da zuzenean


lehen mailako bide gisa jarduten dute, eta, aldi berean, ezin dute biziraun aurrekontu horiek gabe. 2. irudiak erakusten du lehenengo 10 enpresa pribatuek diru-sarrera guztien %60 baino gehiago bereganatzen dutela; horien artean, Boeing, Lockheed Martin eta RTX enpresek %31,2 eskuratzten dute hiruren artean.

1. taula. *Top 100 arma kontratisten etekinen, NATOk herrialdeen BPG metatuaren eta 2014-2024 aldirako NATOk herrialdeen defentsa-gastuaren arteko bilakaera*


Urtea	Etekinak (Top 100)	BPG (NATO)	Defentsa-gastuak (NATO)
2014	396	35.304	943,20
2015	448	36.167	895,70
2016	464	36.839	911,60
2017	483	37.856	918,00
2018	513	38.782	972,40
2019	553	39.585	1052,50
2020	566	37.917	1096,50
2021	599	40.233	1182,90
2022	598	41.341	1190,30
2023	623	42.276	1294,80
2024	679	42.827	1506,00



2. irudia. *Munduko arma-kontratista nagusien diru-sarreraren banaketaren osaera*



Horrez gain, ikus daiteke defentsa-sailen aurrekontuekiko dependentzia maila (funtsean, kontratu publikoak) nabarmena dela kasu ia guztietan. Berriz ere, *top 10*aren kasuan, 3. irudian ikusten denez, enpresa bakar bat da gai sektore publikotik datozen diru-sarreraren tasa %50etik behera jaisteko (Boeing-en kasua), eta hori bere hegazkingintza zibilaren adarrari esker lortzen du.



3. irudia. Munduko kontratista nagusien diru-sarrera osoen eta aurrekontu publikoetatik datozen diru-sarreraren arteko konparazioa

3.2 Errentagarritasuna

Azken hamarkadan (2024 arte) defentsa-sektoreak eta aeroespazialak %17,27 inguruko irabazi-marjina gordina eta %4,96 inguruko irabazi-marjina garbia sortu ditu. Irabazi-marjina hori kontserbadorea irudi badezake ere teknologia-konpainia handiak azken urteotan izaten ari diren hazkunde esponentzialeko prozesuaren errentagarritasun neurrigabearen aldean, industria astun komertzialarena baino nabarmen handiagoa da, eta egonkorragoa denboran; automobilgintzak, adibidez –industria-sektore nagusietako bat izanik–, %2,53ko batez bestekoa baino ez du lortu garai berean.

Izan ere, eragile nagusiek %10 eta %14 arteko ustiapen-marjina egonkorrak mantendu dituzte. Lockheed Martinek, adibidez, %14,29ko irabazi-marjina jakinarazi zuen 2019an; 2024 amaierarako %9,87ra arte estutu zen, materialen inflazioaren eta hornidura kateko frikzioaren ondorioz.

Orain arte aipatutakoari jarraituz, defentsa-sektorearen barruko errentagarritasuna kontratazio publikorako marko legalak baldintzatzen du funtsean, eta prezio finkoko kontratuen eta gehitutako kostuen kontratuen artean oszilatzen du. 2024ko urte fiskalerako, Amerikako Estatu Batuetako Defentsa Sailak 145.000 milioi dolar eskatu zituen Ikerketa, Garapen, Proba eta Ebaluaziorako (RDT&E), eta horrela, gobernu federaleko I+Gko aurrekontu-agintaritza osoaren %60,8 bereganatu zuen.

Europar, Europako Defentsa Funtsak (EDF) 7.300 milioi euroko aurrekontua bideratu du (2021-2027). 2024-2025 zikloetan soilik, EDFk 1.065 milioi euro esleitu zizkien I+G militarreko lankidetzako 62 proiekturi. Esaterako, Airbus buru duen ENGRT II proiektuak (borroka-helikopteroak) EBren ia 100 milioi euroko ekarpena du; Navantiak koordinatutako NEREUS itsas gerrako proiektuak 45 milioi euro jasotzen ditu; eta Estoniako Milrem buru, iMUGS2 gisako lurreko sistema autonomoek ia 50 milioi euro bereganatzen dituzte komunitate-funtsetan. Guztira, EBko 27 estatu kideen defentsako I+G gastua %20 igo zen, 2024an 13.000 milioi eurora iristeraino.

Arrisku teknologikoa blindatzeari esker, industriak lehentasun osoa eman ahal izan dio, modu errazean, inbertitzaileentzako etekin finantzarioari. Kapitalaren hedapenaren analisiak agerian uzten duenez, hamarkada batean zehar, defentsako hamar kontratista nagusiek 240.000

Azken hamarkadan enpresek zorra jaulki zuten bonu korporatiboen merkatuan akziodunei ordainketak finantzatzeko, ekoizpen-gaitasuna handitzeko berrinbertitu beharrean; hori, gainprodukzio-krisi baten sintoma da

milioi dolar bideratu zituzten dibidenduetara eta akzioen berrerosketara. Datu horren alderdirik kritikoena da ordainketa hori epe berean sortutako Diru-fluxu Libre (FCF) osoaren (223.000 milioi dolar) gainetik egon zela. 17.000 milioi dolarreko defizit horrek muturreko finantzariotzea erakusten du: enpresek zorra jaulki zuten bonu korporatiboen merkatuan akziodunei ordainketak finantzatzeko, ekoizpen-gaitasuna handitzeko berrinbertitu beharrean; hori, bestalde, gainprodukzio-krisi baten sintoma da jada.

3.3 Gerra burtsa-pizgarri

Defentsaren finantzariotzeak sektoreko akzioak transmutatu ditu: historikoki aldakortasun-baxuko eta dibidendu egonkorreko babestzat hartzen baziren ere, gaur egun hazkunde handiko aktibo bihurtu dira. Kotizatutako 30 konpainia nagusien merkatu-kapitalizazio bateratuak 1,5 bilioi dolar gainditzen ditu. Aeroespazio eta defentsako Burtsan Kotizatutako Funtsen (ETF) kopuruak gorakada itzela izan du, 2022an 4 izatetik 2024an 27 izatera pasatu baita, guztira 35.000 milioi dolar baino gehiago kudeatu baitituzte aktiboetan.

Merkatu eraginkorraren hipotesiak adierazten duenez, akzioen prezioek berehalakoan jasotzen dute eskuragarri dagoen informazio guztia. Armagintza-sektorean, talka geopolitikoen aurrean balorazio-doikuntza berehalakoak dakartza; horrela, subiranotasuna bermatzeko ezinbestekoa den berrarmatzeak etorkizunean sortuko duen kutxa-fluxuak aurreikusten dira. 2014-2024 aldiko

azterketa ekonometriko sakonek estatistikoki esanguratsuak diren “errendimendu anormalen” existentzia balidatzen dute.

2014an Euromaidan gatazkek mundu-mailako defentsa enpresengan %50,6ko eragin positiboa izan zuten; 2022ko otsailean Ukrainian eskala handiko gerra hasi izanak sektorearen historia modernoko birbalorizazio bortitzena eragin zuen; hasierako egunetan %12 arteko hazkunde-anomaliak erdietsi ziren eta munduko defentsa-konpainien %81,4 arteko hazkundea eragin zuen. 2023ko urriko Gazako genozidioak efektu zehatzagoa baina era berean zorrotza izan zuen, eta Israelgo industriaren balorazioak eta diru-sarrerak izugarri igo zituen; Elbit Systems, IAI eta Rafael enpresek %13 eta %23 arteko igoerak izan zituzten arma-sarreretan aireko defentsa sistema eta munizio eskaerari erantzuteko. Esan gabe doa Ameriketako Estatu Batuek eta Israelek Iranen aurka berriki izandako gerrak ere gora-beherak eragin dituela industria militarren alde, baina haren ondorioak ez dira kontuan hartu honako analisi hau egiterako garaian.

Aipatutako mugimenduen ondorioz, sektoreari dedikatutako indizeek aparteko etekina eman zieten akziodunei. Azken aldian, iShares U.S. Aerospace & Defense (ITA) ETFak urteko %41,55eko errendimendua erregistratu zuen; era berean, Europako defentsa-akzioen saskiek indize zabalak sistematikoki gainditu zituzten, besteak

2023ko urriko Gazako genozidioak Ukrainako gerrak baino efektu zehatzagoa baina era berean zorrotza izan zuen, eta Israelgo industriaren balorazioak eta diru-sarrerak izugarri igo zituen; Elbit Systems, IAI eta Rafael enpresek %13 eta %23 arteko igoerak izan zituzten arma-sarreretan

beste, STOXX Europe 600. Horrek agerian uzten du akzio militarrek burgesiaren sektore batzuen interesa piztu dezaketela, dituzten berehalako finantza-ondorioengatik.

4. INDUSTRIA-SEKTOREAREN OSAERA

4.1 Oligopoliorako joera

Sektore militarreko aktore nagusiak ez daude gaur egungo joera nagusietatik salbuetsita, eta, merkatu-kuoten kontzentrazioaren analisisian ikus zitekeen gisa, monopoliorako joera da nabarmenena. Hautatze-bidezko kontratazio-ereduak, espezializazio tekniko handiarekin eta inbertitutako kapitala birbalorizatzeko zailtasun gehigarriarekin batera, prozesua bizkortzen du: ikuspuntu kapitalista batetik beren burua era egokian erreproduzitu ezin duten enpresak gutxi batzuek xurgatzea. Horrek guztiak estatuak, modu planifikatuan, aukera-sorta txiki bat bermatzea dakar; aukera horiek estatuak berak finkatutako interesei soilik erantzungo diete, eta gainerako guztiak desagerrarazten ditu. Horren erakusgarri dira 2. taulan ikusten diren fusio eta erosketa handiak, guztiak 2018 eta 2024 artean gertatutakoak, eta sektorearen hazkunde handieneko garaiarekin bat egiten dute.

4.2 Azpikontratazioen labirintoa

Kontratista nagusiek defentsako balio nominalik handiena eskuratzen dute; aldiz, fabrikazioaren gauzatze fisikoa bigarren eta hirugarren mailako hornitzaile-sare zabal eta oso zatitu baten mende dago baldintzarik gabe, eta hornitzaile horiei buruzko informazioa lortzea zailagoa izan ohi da.

Kasu horretan, kapital erreproduktiboaren hedapenaren jarraipena taxonomia ekonomiko estandarizatuen bidezko karakterizazioan oinarritu da; batez ere, Ipar Amerikako Industria Sailkapenerako Sistemari (NAICS) eta Industriaren Sailkapen Estandarrerako Kodeetan (SIC). Kode horiek, dituzten alborapenak gora-behera, irudi orokor bat bistartzeko tresna baliagarriak izan daitezke.

Defentsa-fabrikazioaren domeinu nagusia NAICS 3364 kodearen pean biltzen da (Produktu eta pieza aeroespazialen fabrikazioa). Kode horrek Amerikako Estatu Batuetako 7.417 merkataritza entitate barnebiltzen ditu, NATOren hornidura-katearen nukleoa osatzen dutenak.

2. taula. 2018-2024 urteen arteko enpresa militar nagusien erosketa eta fusio nagusiak

Urtea	Eroslea (eskuratzaillea)	Xede-enpresa	Eragiketaren balioa (USD)	Arrazionaltasun estrategikoa / Sektore-inpaktua
2019	Raytheon Company	United Technologies Corp.	121.000 milioi	Fusio horizontala RTX sortuz; nagusitasuna misiletan eta defentsa aeroespazialean.
2019	L3 Technologies	Harris Corporation	33.500 milioi	L3Harris-en sorrera; monopolioa gerra elektronikoan, abionikan eta komunikazio taktikoetan.
2018	Northrop Grumman	Orbital ATK	9.200 milioi	Integrazio bertikala misil-motor solidoetan, espazio-jaurtiketetan eta misilen aurkako defentsan nagusitasuna bermatzeko.
2024	The Boeing Company	Spirit AeroSystems	7.960 milioi	Aeroegituren hornitzaile kritiko baten birxurgatzea, porrot egindako hornidura-kate bat egonkortzeko.
2023	BAE Systems (UK)	Ball Aerospace (US)	5.600 milioi	Sentsore optiko aurreratuen erosketa eta hedapen transatlantikoa AEBko espazio-sistemetan.
2024	AeroVironment	BlueHalo	4.100 milioi	Plataforma autonomoen, dronen aurkako teknologiaren (C-UAS) eta espazio-kontrolako sistemen agregazioa.

Hona hemen multzo industrial-militarrean presentzia handiena duten kodeak:

- **NAICS 336411:** Hegazkinen fabrikazioa; erregistratutako 2.462 entitate hartzen ditu barne.
- **NAICS 336412:** Hegazkin-motorren eta motor-piezen fabrikazioa; 1.252 entitate biltzen ditu.
- **NAICS 336413:** Hegazkinen beste pieza batzuen eta ekipamendu osagarrien fabrikazioa; hornidura-kateko nodorik handiena da, 3.254 entitaterekin.
- **NAICS 336414:** Misil gidatuen eta espazio-ibilgailuen fabrikazioa; eliteko maila bat da 237 entitaterekin.
- **NAICS 336415:** Misilen eta espazio-ibilgailuen propulzio-unitateen fabrikazioa; 128 entitate espezialitate dituena.
- **NAICS 336419:** Misilen eta espazio-ibilgailuen beste pieza batzuen eta ekipamendu osagarrien fabrikazioa; 84 entitate gehitzen ditu.

Horrez gain, kode paraleloek –hala nola SIC 3812 (Bilaketa, Detekzio eta Nabigazio Sistemak),

SIC 3829 (Neurtze Gailuak) eta SIC 8748-76 (Defentsa Kontratistak)– elektronikako domeinu kritikoak biltzen dituzte.

Monopsonioaren ezaugarri zehatzek azpikontratututako agenteen jarrera ere zehazten dute. Normalean, bigarren mailako hornitzaileen kasuan, lehen mailako eragileekiko dependentziak identifikatzen dira; horrela, sektoreak dituen interes zorrotzen katea luzatu egiten da.

Hala ere, Amerikako Estatu Batuen kasuan behintzat, eragile handien inguruan dabiltzan behe-mailako hornitzaileen kantitateak beherrakada nabarmena izan du; bai fabrikazioa erregulatzen duen zurruntasunagatik, bai enpresa nagusiek zuzenean xurgatzen dituztelako.

Ildo horretatik, gaur egun sektore militarrentzako horniduran parte hartzen duten 221.286 enpresa daudela estimatzen bada ere (horietatik %74, hau da, 163.987, enpresa txiki gisa sailkatuta), enpresa txiki horien parte-hartzea %40 baino gehiago uzkurту da 2011tik.

Gaur egun sektore militarrentzako horniduran parte hartzen duten 221.286 enpresa daudela estimatzen bada ere (horietatik %74, hau da, 163.987, enpresa txiki gisa sailkatuta), enpresa txiki horien parte-hartzea %40 baino gehiago uzkurту da 2011tik

Bizirik dirauen erdiko estratuaren pisu espezi-fikoa ulertzeko, erakusgarri gisa, diru-sarreraren %10 baino gehiago erabilera militarretik lortzen duten osagai-fabrikatzaile eta teknologia-enpresa nagusietako batzuk identifikatu dira. 3. taulak NATOren hornidura-kateko funtsezko eragileen metrika finantzarioak erakusten ditu:

3. taula. Bigarren mailako industria enpresa nagusiak

Azpikontratista / Osagai-fabrikatzailea	Gaitasun nagusiak	Guztizko diru-sarrerak (milioi USD)	Defentsako diru-sarrerak (milioi USD)	Defentsako diru-sarreraren %
M1 Support Services	Logistika- eta hegazkingintza-mantentzea.	900	900	%100,0
Anduril Industries	Sistema autonomoak, IA, UASen aurkakoak (Contra-UAS).	1.000	950	%95,0
Curtiss-Wright Corp.	Itsas ingeniariartzako eta ingeniartzita aeroespazialeko osagaiak.	3.120	1.790	%57,0 - %90,0
Mercury Systems	Ertz-konputazio segurua, defentsa-elektronika.	833	833	%85,6 - %100,0
Nammo	Munizioa, misil-motorrak, espazio-aplikazioak.	1.010	808	%80,0
RENK Group	Ibilgailu militarren transmisioak, abiadura-kutxak.	1.230	887	%72,0
Kratos Defense & Security	Tripulaziorik gabeko sistemak, droneak, satelite bidezko komunikazioak.	1.130	988	%67,4 - %87,0
Palantir Technologies	Datu-analitika komertziala, helburu militarretarako IA.	2.860	1.570	%55,0
Teledyne Technologies	Sentsoreak, komunikazioa eta elektronika.	5.450	1.310	%24,1
Hexcel Corporation	Material konposatu aurreratuak, aeroespazioko karbono-zuntza.	1.570	300	%19,1
Spirit AeroSystems	Aeroegiturak eta fuselaje-osagaiak.	6.310	975	%15,0
Amphenol	Interkonexio-sistemak, sentsoreak, antenak.	15.220	1.670	%11,0

4.3 Gardentasun-legala

Industria-jarduerak eta horien neurketek enpresek sektore militarrean duten parte-hartzeari buruzko ideia orokor bat ematen badute ere, mekanismo ugari dago sektore horri eusten dioten logistika- eta finantza-sareen benetako tamaina ezkutatzeko. NATOko herrialdeen gardentasun sistema-publikoek hutsuneak dituzte, segurtasun nazionalaren aterkipean interes korporatiboak babesteko diseinatutakoak.

4.3.1 Erregistro publikoetako hutsuneak eta lege-ezketuak

Estatu Batuetan, Eskuraketa Datuen Sistema Federala (FPDS) gobernuaren kontratazio-datuen konpentsazio-ganbera nagusia da. FPDSk lehen mailako aktore handiei (besteak beste, Lockheed Martin edo General Dynamics) esleitutako milaka milioi dolarren inguruan ikusgarritasuna eskaintzen badu ere, ez du baliozko informaziorik ematen kapitalak hornidura-katearen beheko geruzetarako bidean duen kaskada-fluxua arakatzeko orduan.

Lege-blindatzeari dagokionez, kontratistek prezio-ereduak, etekin-marjina zehatzak eta euren hornitzaileen identitate teknikoak ezkutatzen dituzte Defentsarako Eskuraketa Araudi Federalaren Eranskinari (DFARS) eta Informazio Askatasunaren Legearen (FOIA) 4. salbuespenari esker. Hornitzaile-katea identifikatzeko FOIA eskaera aurkezten denean, agentzia federalek 4. salbuespena erabili ohi dute sistematikoki, beheko geruzetako hornitzaileen jatorri teknikoa eta prezio-egiturak agerian uzteak kontratista nagusiari “kalte lehiakor nabarmena” eragingo liokeela argudiatuz; horrela, informazio hori “sekretu komertzial” edo “informazio patentatu” gisa legalki blindatzen da.

EBko kontratazio publikorako datu-baseak defentsako gastu errealararen %10 inguru besterik ez du jasotzen; gainerako %90a aurrez argitaratu gabeko prozedura negoziatuetara desbideratzen da

Europar Batasunean, gardentasun falta es- trukturala da eta akordio mailan dago formaliza- tua. Merkatua sistematikoki zatikatzen da estatu kideek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 346 (1)(b) artikuluko salbuespena argudiatzen dutenean. Xedapen ho- rri esker, gobernuak defentsa kontratuak mer- katuaren arauetatik kanpo utz ditzakete, baldin eta horiek zabaltzea “segurtasun-interes fun- tsezkoen” aurkakotzat jotzen bada. Praktika ho- rren erantzun matematiko gisa, European Centre for International Political Economy erakundeak egindako ikerketek kalkulatzen dute *Tenders Elec- tronic Daily* (TED) datu-baseak –EBko kontrata- zio publikorako datu-baseak– defentsako gastu errealararen %10 inguru besterik ez duela jaso- tzen; gainerako %90a aurrez argitaratu gabeko prozedura negoziatuetara desbideratzen da.

4.3.2 Paradisu fiskalak eta offshore egiturak defentsan

Diru-sarrera masiboak aurrekontu publikoe- tan oinarritu arren, jarduera konprometituenak ezkutatzeko deslokalizazioa erabiltzen duten me- kanismoak aurkitzen dira.

Industriak sasienpresak (*shell companies*), *hol- ding* sozietateak eta filialak erabiltzen dituzte zerga-tasarik gabeko edo oso txikiko jurisdikzioe- tan –nagusiki Kaiman uharteak, Bermudak, Lu- xenburgo, Birjina uharte britainiarrak (BVI) eta Maurizio– errentagarritasun handiagoa lortzeko zerga-ordainketatik salbuetsiz, bai eta euren jar- dueren trazabilitatea lausotzeko ere.

Kazetari Ikertzaileen Nazioarteko Partzuer- goak (ICIJ) filtratutako datuetan oinarritutako mundu mailako ikerketek (*Panama Papers* eta *Paradise Papers*, adibidez) jarduera mota horre- kin lotutako kasurik adierazgarrienetako batzuk erakusten dituzte:

- **BAE Systems (Erresuma Batuak):** Histori- koki *offshore* erakundeen sare zabal bat operatu du. Filtrazioek ezagutarazi zuten Birjina Uhar- te Britainiarretan eratutako enpresa-pantailen erabilera; horien artean, *Red Diamond Trading* eta *Poseidon Trading Investments* nabarmentzen ziren. Firma horiek, ustez, Ekialde Hurbileko funtzionarioei ezkutuko ordainketak eta komi- oiak bideratzeko erabili ziren.

• **Lockheed Martin (Estatu Batuak):** SECn (Securities and Exchange Commission) aurrean aurkeztutako korporazio-txosten analiseiek, *offshore* datuekin gurutzatuta, agerian uzten dute AEBko erraldoiak filialak zabaldu dituela Delawaren (adibidez, Lockheed Martin Engine Investments, LLC), Bermudetan eta Kaiman uharteetan.

• **Thales (Frantzia):** Defentsarako elektronikari aritzen den Europako erraldoia *holding* global zabal baten jabe da; Luxenburgon (adibidez, Thales Cyber Solutions Luxembourg S.A.) eta Maurizio (Thales International Africa Ltd) erakundeak ditu. Maurizioko jurisdikzioa asko erabiltzen du enpresak Afrika eta Ekialde Hurbileko operazio-eremuetatik ateratako etekinak bideratzeko.


Nahiz eta Europako mailan ondorioak neurtu ditzakeen informazio-iturririk ez eduki, aipatutako datuen hasierako azterketa akademikoek agerian uzten dute, adibidez, Alemaniako multinazionalen %82k filialak dituztela paradisu fiskaletan, eta euren irabazi globalen %9 inguru jurisdikzio horietara bideratzen dutela.

5. FINANTZA-SEKTOREAREN OSAERA

Gerraren merkatuak bermatu dezaken finantza-errentagarritasunak finantza-ekosistema handi bat erakartzen du; ekosistema hori, duen errotze maila altuagatik, sektoreari ezinbestekoa zaio bere irabazi-tasa mantentzeko. Horrez gain, ikusten da armagintza finantzatzen duten eta horretaz aberasten direnak ez direla estatuak soilik, kudeaketa pasiboko funtsen, arrisku-kapitaleko enpresen eta itzaleko inbertsio-ibilgailuen sare bat baizik.

4. irudian ikus daitekeenez, finantza-kapitalak hartzen duen forma nagusia akzio-partaidetza da (guztizkoaren %69), eta 660.000 milioi dolarreko balio estimatua du (armagintzako industria-enpresetan soilik); ondoren, tarte handiz, maileguak daude, guztizkoaren %19. Horrez gain, armagintza-industriari eusten dioten 12 finantza-erakunde nagusiak AEBkoak dira, eta horien artean soilik partaidetzaren %50 baino gehiago biltzen da.

Armagintza-enpresetako inbertsio globala motaren arabera (2024)



4. irudia. Sektore militarreko finantza-kapitalaren osaera

5.1 Akziodunak

Mendebaldeko kontratista handien akzio-dun-egitura inbertsio-funts instituzionalek guztiz kontrolatuta dago, zehazki, “Hiru Handien” mende: Vanguard, BlackRock eta State Street. Kudeatzaile horiek indexatutako funts zabalak eta Burtsan Kotizatutako Funtsak (ETFak) eskaintzen dituzte; azken horiei dagokionez, defentsara bideratutako kopurua 2022ko 4tik gaur egungo 27ra igaro da.

Kapital-bolumen agregatuei erreparatuz gero, industria militarrean fluxua esanguratsua da. Global Alliance for Banking on Values (GABV) erakundeak bildutako datuen arabera (4. taulan agertzen dira), hiru kudeatzaile horiek dira munduko zerrendaburuak arma-ekoizle diren enpresetan (modu zuzenean) inbertsio gehien egiten dutenen artean; ondoren, jarraian erakusten diren funtsak datoz.

Banakako funtsei dagokionez, esposizioa era berean nabarmena da. Esaterako, Vanguard Total Stock Market Index Fund (VTI) erraldoiak bere zorroaren %4,69 bideratzen du kontratista militarretara; hori inbertsio-ibilgailu bakar batean 94.670 milioi dolar txertatzearen balio bera dauka. Era berean, BlackRocken funts handiek (hala nola iShares Russell 1000 ETF) eta State Streetenek (adibidez, SPDR Portfolio S&p 500 Griwth ETF) kontratista militarrekiko esposizioari eusten diote, eta hori, sistematikoki, zorroen %3 eta %5 izan ohi dira.

Lockheed Martin Corporation enpresaren kasuan, adibiderik paradigmatikoenetako bat, inbertitzaile instituzionalak enpresaren kapital osoaren %71,31 ingururen jabe dira. 5. taulan agertzen diren bost akziodun nagusien banakapenak agerian uzten du kapital pasiboaren erabateko nagusitasuna.

4. taula. Inbertsio-funts nagusiak eta armagintza-enpresetarako esposizio agregatua

Funtsa	Arma-enpresekiko esposizio agregatua (milioi USD)
Vanguard	~ 92.000
State Street	~ 68.000
BlackRock	~ 67.000
Capital Group	~ 55.000
Bank of America	~ 45.000
JPMorgan Chase	~ 33.000
Citigroup	~ 28.000
Wellington Management	~ 27.000
Wells Fargo	~ 25.000
Morgan Stanley	~ 24.000

5. taula. Lockheed Martin Corporation enpresaren inbertitzaile nagusiak

Inbertitzaile instituzionala	LMTn mantendutako akzioak	Posizio aldaketa berria	Zorroaren ikuspegia (portfolio approach)
Vanguard Group Inc.	~21,0 milioi	%0	Indexazio Pasiboa / ETFak
BlackRock, Inc.	~18,0 milioi	+%5	Indexazio Pasiboa / ETFak
Charles Schwab Investment Mgmt.	~8,6 milioi	+%1	Instituzionala / Txikizkaria
Geode Capital Management	~4,9 milioi	%0	Kuantitatiboa / Indizea
State Street Corp.	~4,0 milioi	Jabetza nagusia	Indexazio Pasiboa / ETFak

6. taula. Europako funts nagusiak eta sektore militarren finantzaketa agregatua

Bankua / Finantza instituzioa	Jatorrizko herrialdea	Finantziazioa (milioi USD)
BNP Paribas	Frantzia	~ 14.000
Deutsche Bank	Alemania	~ 13.000
Crédit Agricole	Frantzia	~ 10.000
Société Générale	Frantzia	~ 7.000
UBS	Suitza	~ 7.000
Barclays	Erresuma Batuak	~ 6.000
Groupe BPCE	Frantzia	~ 6.000
Legal & General	Erresuma Batua	~ 5.000
Santander	Espainia	~ 5.000
Banco Bilbao Vizcaya Argentaria (BBVA)	Espainia	~ 5.000

Nahiz eta ez den mekanismorik ohikoena, eredu europarrak aukera ematen die Europako instituzioei zor-merkatu instituzionalaren bidez armamentuaren garapenerako kapitala txertatzeko; horrela, erregimen gatazkatsuetara armak esportatzen dituzten enpresen akziodun zuzen izateari lotutako ikusgarritasuna eta ospe-arriskua saihesten dute

Kontzentrazio hori milimetrikoki errepi-katzen da gainontzeko oligopolioan. Northrop Grumman Corporation enpresaren kasuan, 1.960 jabe instituzionalek 126,3 milioi akzio kontrola-tzen dituzte, eta lehenengo bost inbertitzaileen artean %35 baino gehiago banatzen dute.

Europako eszenatokian, finantzaketak itxuraz zorrotzagoa den ESG (Ingurumena, Gizartea eta Gobernantza) araudiaren pean jarduten dute; aseguratzaile handiek (besteak beste, Munich Re eta Swiss Re) ustezko politika murriztaileak ezartzen dituzte. Hala ere, praktikan murrizketa horiek ez direla existitzen ikus daiteke. 2024. urterako soilik Europako hamar eragile garrantzi-tsuenen inbertsioen balio hurbilduak erakusten dira 6. taulan.

Aurkeztutakoez gain, eredu zertxobait desber-din bat jarraitzen duten enpresak azpimarratu behar dira, besteak bestea, Allianz aseguru-etxe alemaniarra. Horrek nabarmenki zor-militarra-ren jabetzaren alde egiten du (2.720 milioi eu-ro bonutan) akzio-kapitalen aldean (109 milioi euro). Nahiz eta ez den mekanismorik ohikoe-na, eredu horrek aukera ematen die Europako instituzioei zor-merkatu instituzionalaren bidez armamentuaren garapenerako kapitala txerta-tzeko; horrela, erregimen gatazkatsuetara armak esportatzen dituzten enpresen akziodun zuzen izateari lotutako ikusgarritasuna eta ospe-arris-kua saihesten dute.

5.2 Maileguak eta zorra

Narratiba publikoak oker suposatzen du go-bernuko aurrekontuek zuzenean, erraztasunez eta aldez aurretik ordaintzen dituztela armagin-tza-gastuak, baina ereduak sarritan maileguak eta kapital-aurrerakinak behar izaten ditu; ho-rrela, finantza-sektoretik errentagarritasuna erauzteko bide berriak irekitzen dira.

Industriaren muturreko finantzariotze-maila agerian geratzen da korporazioek beren kapitala nola esleitzen duten aztertzean. Aurrez ikusi de-nez, industriak sistematikoki gehiago gastatzen du bere inbertitzaileak saritzen, bere operagarri-tasun industrialak berak sortzen duena baino.

Diru-fluxu Librearen (FCF) erabilerari buruz egindako azterketa baten arabera, hamar urte-ko aldian (2014-2024), mendebaldeko hamar de-fentsa-kontratista nagusiek 240.000 milioi dolar ordaindu zituzten dibidenduetan eta akzioen be-rrerosketan. Zifra horren alderdirik kritikoena da aldi berean 223.000 milioi dolarreko Diru-flu-xu Libre osoa gainditu zuela.

17.000 milioi dolarreko defizit horrek adie-razten du industriak akziodunentzako itzulkinak lehenesten dituela, autofinantzatutako kapitala-ren gastuen (besteak beste, fabrikak handitzea-ren) aurretik; ondorioz, konpainia horiek Wall Street-i ordainketak egiteko etengabe zor-korpo-ratiboa jaulki behar izaten dute. Defentsako aurre-kontu subiranoen berme inplizituak babestutako

kreditu-kalifikazio bereziak dituztenez, enpresok baldintza oso onuragarrietan jaulki dezakete zorra; horrela, modu agresiboan parte hartzen dute 2024an 2,216 bilioi dolar jaulkitzera iritsi zen AEBtako bonu korporatiboen merkatuan.


Arreta berriz Europako bankuetan jartzen badugu, kontratista handiei maileguak emateko orduan partaidetza-maila handia dutela ikus daiteke. 2021eko urtarrileko eta 2023ko abuztuko tartean soilik, Europako 20 hartzekodun nagusiek 36.100 milioi euro eman zizkieten korporazio horiei mailegu sindikatuetan eta zorra harpidetzeko zerbitzuetan. 7. taulan 8 garrantzitsuenak agertzen dira.

Horrez gain, maileguetara mugatu beharrean, agerian geratzen da harpidetza-zerbitzuen (*underwriting*) erabilera zabala ere, 21.100 milioi euroko baliokoa. Hortaz, argi dago Europako banku handiek bitartekari kritiko gisa jarduten dutela; defentsa-enpresei bonu korporatiboak jaulkitzen laguntzen diete, ondoren inbertitzaile instituzionalek edo funts pasiboek eros ditzaten, besteak beste, Allianz edo UBS enpresek.

2021eko urtarrileko eta 2023ko abuztuko tartean soilik, Europako 20 hartzekodun nagusiek 36.100 milioi euro eman zizkieten zenbait banku europarri mailegu sindikatuetan eta zorra harpidetzeko zerbitzuetan

7. taula. Europako banku nagusiak sektore militarreko maileguetan 2021 eta 2023 artean

Europako bankua	Jatorrizko herrialdea	Aurreikusitako finantzaketa osoa
BNP Paribas	Frantzia	5.690 milioi €
Crédit Agricole	Frantzia	4.890 milioi €
Deutsche Bank	Alemania	3.190 milioi €
Barclays	Erresuma Batuak	3.170 milioi €
Société Générale	Frantzia	2.420 milioi €
Commerzbank	Alemania	1.940 milioi €
Santander	Espainia	1.840 milioi €
HSBC	Erresuma Batuak	1.580 milioi €



5.3 Kotizatu gabeko kapitala eta arrisku-kapitala

Merkatu publikoak erraldoien (esaterako, Vanguard eta BlackRock) domeinua badira, hornidura-katearen oinarria modu ezkutuagoan xurgatzen ari dira kotizatu gabeko kapitalak (*private equity*, PE) eta arrisku-kapitalak (*venture capital*, VC). Burtsak kotizatzen duten enpresak ez bezala, kotizatu gabeko kapitala konpainia pribatuetan egiten diren inbertsioei dagokie, partaidetza zuzenak eskuratuz; eskuarki, haien kudeaketaren kontrola hartzeko helburuarekin.

2020 eta 2025 artean, sektore aeroespazialean kotizatu gabeko kapitalak babestutako munduko inbertsio guztien %83 Estatu Batuetako enpresetara bideratuta zeuden. PE motako enpresa handien estrategia merkatuaren kontzentrazioa bideratu da nabarmenki azken urteetan. Hainbat azterketek adierazi dutenez, enpresa horiek integrazio bertikala deiturikoa gauzatzen dute: diru-sarreraren mendekotasun handia duten osagai espezializatuen ekoizleak identifikatzen dituzte, zorpetze-maila handia erabiliz (palanka-efektua) eskuratzen dituzte, eta maila ertaineko plataformetan finkatzen dituzte, irabazi handiagoko kontratu federalen truke lehiatzeko.

Ondorengoak dira 2022 eta 2024 artean kotizatu gabeko kapitalaren funts aktiboenak:

- Arcline Investment Management: hazkundera bideratutako firma, kapital-konpromisoe-tan 9.100 milioi dolar dituen, sektorean 20 eskuratzeko burutu zituen (3 plataforma nagusi eta bigarren mailako 17 operazio).
- AE Industrial Partners: 6.200 milioi dolarreko kudeaketa-bolumenarekin, defentsa-enpresa pribatuak azkar eskalatzeko kapital instituzionalaren hornitzaile nagusietako bat da.
- Arlington Capital Partners: erosketa eta eraikitze (*buy-and-build*) estrategiak gauzatzen espezializatua dago; esaterako, BlueHalo konglomeratua sortu eta AeroVironment enpresari saldu zion.
- JMI Equity & CORE Industrial Partners: hazkunde handiko software-enpresei eta defentsa-sektorean sartzen ari diren fabrikazio aurretatuko enpresei kapital malgua ematen dieten hornitzaileak.
- Enlightenment Capital: sektore aeroespazialean, defentsan eta gobernu-teknologian bereziki zentratutako funts bat.

Paraleloki, arrisku-kapitala nagusiki “erabilerako bikoitzeko” teknologiak finantzatzen ari da, softwareak definitutako gerran indarrez sartzeko. Historikoki, *startupek* porrot egiten zuten “heriotzaren haran” ezagunean –prototipoa garatzen zenetik Pentagonoak ekoizpen-kontratuak esleitu arteko diru-sarrerarik gabeko tartean-. Gaur egun, arrisku-kapitalak babestutako enpresa horiei erosketa-burokrazia tradizionalaren zati handi bat saihesteko bidea ematen dieten mekanismoak daude, esaterako, *Other Transaction Authorities* (OTA) delakoak.

Haustura horren paradigma bi kasu nabarmenki mediatiko dira. Anduril Industries eta Palantir Technologies.

Lehena, Anduril, 2024 defentsa-inbertsio errondarik handienez 1500 milioi dolar bildu zituen. Adimen artifizialeko sistemengatik eta munizio inguratzaileengatik baloratua, 950 milioi dolarreko diru-sarrera militarrek lotu zituen, funtzionalki software-kontratista nagusi natibo gisa jardunez.

Era berean, Palantir Technologies enpresak bere merkataritza-arkitektura aprobetxatu zuen azkar hedatzeko; izan ere, jakinarazi duenez, bere 2.860 milioi dolarreko diru-sarrera osoaren %55 inguru zuzenean datoz inteligentzia militarri eta helburuak finkatzeko IAri lotutako gobernu- eta defentsa-kontratuetatik. Azken urteetan, enpresak hainbat polemikari egin behar izan die aurre. Errepikakorrena, Estatu Batuetako Immigrazio eta Aduanen Kontrolerako Zerbitzuarekin (ICE) lotutakoa da. Hamarkada batez datuen analisisen sistemak bermatu dizkio (esaterako, *Investigative Case Management* plataforma), paperik gabeko etorkinak lokalizatzeko eta atxilotzeko erabili direnak; lotura hori indartu egin zen Trumpen administrazioaren garaian eta konpainiak behin eta berriz defendatu behar izan du aipatu lotura giza eskubideen aldeko erakundearen kritiken aurrean. Horri bere adimen artifizialeko softwarea ingurune militarretan eta zaintza masiboan erabiltzeari buruzko galdera etikoak gehitzen zaizkio, Palestinako gerran ikusi denez, adibidez. Polemikak gorabehera, haren emaitza finantzarioek ez diote hazteari utzi: 2025eko laugarren hiruhilekoan 1.410 milioi dolarreko diru-sarrerak jakinarazi zituen (aurreko urteko epe berean baino %70 gehiago), eta ekitaldia 4.475 milioi dolarreko fakturazioarekin eta 1.625 milioi euroko etekin garbiarekin itxi zuen.

6. ONDORIOAK

I. Defentsa-industriaren dinamika makroekonomia egonkortzeko mekanismo gisa

Merkatu zibilaren ohiko gorabeheretatik bereizten duen logika ekonomiko batean aritzen da aeroespazioaren eta defentsaren ekosistema globala, uzkurdura-zikloetan kapitalaren erreproduktzioarako mekanismo estruktural gisa jarduten baitu. Datu enpirikoek erakusten dutenez, armagintza-sektoreak inflazio-presioen aurrean erresilientzia berezi bat erakusten du. 2024an, munduko gastu militarrek urte arteko %9,4ko igoera erregistratu zuen. Goranzko joerarekin, munduko bolumen-ekonomikoa 2,718 bilioi dolarretan zegoen 2025ean, Barne Produktu Gordinaren (BPG) %2,5 baino gehiago.

Sektorean etengabeko kapital txertaketak erakusten duenez, defentsaren produkzioa inbertsiorako espazio iraunkor bat da. Kontsumo-ondasunen merkatuen saturazioarengatik metaketak etengabeko murrizketei aurre egiten dien makroekonomiaren testuinguruan, sektore militarrek balioa metatzea ahalbidetzen du, bere ekoizpena merkatu zibil tradizionalera bideratuta ez dauden ondasunetan zentratzen baitu. 100 enpresa militar nagusien etekinen eta NATOko herrialdeen defentsa-gastuaren bolumenaren arteko korrelazio estatistikoa altua da (Pearsonen r -a: 0,9539) berresten dute erakunde pribatu horien errentagarritasuna ekoizpen-lerro espezializatu horien etenik gabeko hedapenaren mende dagoela; erakundeko gobernuen defentsa-saileko aurrekontu handiek ordaintzen duten hedapenaren mende.

II. Kontzentrazio korporatiboa eta egitura oligopolikoak sektorean

Defentsa-merkatuaren garapen historikoak kapital-kontzentrazioarako eta egitura oligopolikoak sendotzeko joera nabarmena erakusten du. Merkatu zatikatu gisa funtzionatu beharrean, industria-ekoizpenaren gailurra korporazio-nukleo murrizt batek nagusitzen du. 2024an, sektoreko 100 firma nagusiek 679.000 milioi dolarreko diru-sarrera agregatuak jakinarazi zituzten, azken hamarkadan %26ko hazkunde erreala izan dutela islatuz. Monopolizazio-maila hain handia da, non hamar enpresa nagusiek merkatu-kuotaren %60 baino gehiago hartzen duten; hiru korporazio soilik (Boeing, Lockheed Martin eta RTX) dira euren segmentuko diru-sarrera guztien %31,2ren arduradun.

Merkatu zibilaren ohiko gorabeheretatik bereizten duen logika ekonomiko batean aritzen da aeroespazioaren eta defentsaren ekosistema globala, uzkurdura-zikloetan kapitalaren erreproduktzioarako mekanismo estruktural gisa jarduten baitu

III. Muturreko fintzantzariotze-dinamikak

Defentsa-industriaren egungo eredu operati-boak finantzariotze-maila handia du; bertan, kapitalaren esleipenak sistematikoki lehenesten du epe laburreko eta ertaineko finantza-errentagarritasuna, gaitasun erreproduktiboen hedapen ginetik. Korporazio horiek 240.000 milioi dolar bideratu zituzten dibidenduen banaketara eta akzioak berrerosteko programetara. Ondorioz, ordainketa horrek gainditu egin zituen epe berean operazioek sortutako Diru-fluxu Libre osoa, 223.000 milioi dolar, hain zuzen ere.

17.000 milioi dolarren defizit horrek frogatzen du enpresek zor-korporatiboak jaulkitzera jotzen dutela, ez ekoizpen-ziklo berri batean inbertitze-ko, baizik eta inbertitzaileen ordainsariei eutsi ahal izateko. Jabetza-egiturak, gainera, kapital instituzionalaren pisua berresten du; funts pasiboak kudeatzaileek (besteak beste, Vanguard, BlackRock eta State Street) firma horien kontrol nagusia dute. Europako bankuak, itxuraz sektore militarrean ez hain sartuta egon arren, ehunka milioi dolar pilatzen ditu akzioetan eta mailegutan.



IV. Gerra kapitalistaren saihetsezintasuna

Egungo baldintza materialen pean, gerra ez da soilik inperialismoen arteko lehiari gailentzeko edo indar militarra erabiliz besteen balioaz jabetzeko mekanismo bat; aitzitik, ekonomiaren eragile erresiliente eta fidagarri bihurtzen da (behintzat egungo fasean). Ezaugarri horrek, estatuak krisi garaietan industria mota horiek oldarkorki indartzera bideratzeaz gain, kapitalaren kontzentrazioa bultzatzen du sektore militarren inguruan, dela kapital industrial (hornikuntza-sarearen parte izatera bideratuz), dela finantza-kapitala (beste ia sektore guztiek baino errentagarritasun ekonomiko handiagoak lortuz); horrela, sektore militarra ezinbesteko agente bihurtzen da fase inperialistan kapitalaren beraren erreprodukzio propiorako. Hori dela eta, zifrek eta osaerak frogatzen dute gerraren beharra estrukturala dela, bai eta lehentasunezkoa ere. Beraz, ezinezkoa da bakean bizi den mundu kapitalistarik existitzea. ●

Egungo baldintza materialen pean, gerra ez da soilik inperialismoen arteko lehiari gailentzeko edo indar militarra erabiliz besteen balioaz jabetzeko mekanismo bat; aitzitik, ekonomiaren eragile erresiliente eta fidagarri bihurtzen da

KONTSULTAGAI INTERESGARRIAK

Cernat, L., Guinea, O., y Preuss, H. (2025). *Openness and fragmentation in EU defence procurement* (Policy Brief - No. 20/2025). European Centre for International Political Economy.

International Institute for Strategic Studies. (2026). *The military balance 2026*. Routledge.

Stockholm International Peace Research Institute. (s.f.). *SIPRI arms industry database*. Kontsulta-data: 2026ko martxoaren 28a. Iturria: <https://www.sipri.org/databases/armsindustry>

Stockholm International Peace Research Institute. (s.f.). *SIPRI military expenditure database*. Kontsulta-data: 2026ko martxoaren 28a. Iturria: <https://www.sipri.org/databases/milex>

NATO Public Diplomacy Division. (2025). *Defence expenditure of NATO countries (2014-2025)* (Press Release). North Atlantic Treaty Organisation.

Cernat, L., Guinea, O., y Preuss, H. (2025). *Openness and fragmentation in EU defence procurement* (Policy Brief - No. 20/2025). European Centre for International Political Economy.



ESTATU INPERIALISTA GARAIKIDEEN FUNTZIOA GERRA KAPITALISTAN

Testua — **Manex Lopez**

Irudia — **Iker Orueta**

SARRERA

Komunikabideetan, gerra eta haren inguruko fenomenologia osoa aberrazio, akats diplomatiko edota interes indibidual hutsek mugituta jarduten duten lider autoritarioen gutizia gisa aurkeztu ohi da. Aitzitik, gerra agintari baten edo bestearen borondate indibidualetan oinarritzen dela proposatzen duen ikuspegiak aurrez aurre egiten du talka mundu mailako sektore industrial-militarraren hazkuntza sistematiko, planifikatu eta azeleratuarekin.

Halabeharraren emaitza izatetik urrun, gastu militarra funtsezko tresna ekonomikoa da kapital monopolistaren biziraupenerako. Stockholmeko bakerako ikerketaren nazioarteko institutuaren (SIPRI) datu berrienek era ezin hobean azaltzen dute fenomeno hori: 2024ean, mundu mailako gastu militarrek marka guztiak hautsi zituen eta 2,718 bilioi dolarrekoa izatera iritsi zen (2024ko balio konstantean), edo bestela esanda, 2.718.000.000.000 dolar urte batean; balio errealetan %9,4ko igoera 2023koaren aldean. Horrek esan nahi du Gerra Hotza amaitu zenetik urte arteko jauzirik handiena izan dela.

Estatu Batuak dira, inongo zalantzarik gabe, joera militarista horren buru; izan ere, 997.000 milioi dolarreko gastua erregistratu dute, hau da, %5,7ko urte arteko hazkundera, eta 2027rako 1,5 bilioi dolarreko zenbatekora iristeko aurreikuspenak egin dituzte. Bestalde, Europako blokea (Europar Batasuneko herrialdeak eta Erresuma Batua) 422.734,8 milioi dollarrera iritsi da, hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, %13,5eko igoera izan du.

Europako kasua bereziki paradigmatikoa da ilustratzeko gerrak interes estrategikoa duela, indar militarren erabileraz haratago. Izan ere, oraintsuko armatze-hazkundeak argi uzten ditu kapitalismo garatuan gerra ezinbestekoa egiten duten mekanismo nagusietako bi.

Lehenik eta behin, potentziek haien posizio inperialistari eusteko duten premia, posizio

Gerra agintari baten edo bestearen borondate indibidualetan oinarritzen dela proposatzen duen ikuspegiak aurrez aurre egiten du talka mundu mailako sektore industrial-militarraren hazkuntza sistematiko, planifikatu eta azeleratuarekin

hegemoniko hori nahitaezko baitzaie haien kapitala balorizatzeko; hori periferia globalaren kontura egiten dute, hain zuzen ere, Hego Ameriketako, Afrikako eta Asiako hegoaldeko zenbait erregioren kontrolaren eta erauzketaren bitartez. Egiturazko menderakuntza-borondate hori, zeina historia modernoan egoera zenbatezinetan egiaztatu den, argi eta garbi konfirmatu zen duela gutxi Municheko Segurtasun Konferentzian, non eta Marco Rubioren parte-hartzean, eta gainera, agintari politikoen eta enpresari europarren multzo zabal baten txaloaldia jaso zuen.

Bigarrenik, eta ez garrantzi gutxiagokorekin, berrarmatze orokortu horrek gainbeheran dagoen Europako arlo industrial bat indarberritzeko premia larriari erantzuten dio. Zorra eta inbertsio publikoa era masiboan arlo militarerra bideratuz, estatuak erreskate ekonomikoaren motor gisa jokatzten du, kontinenteko goi burgesiaren neurrira diseinatutako balorizazio ziklo berri bat prestatzeko. Funtsean, instituzioetatik bultzaturiko berregituratze kapitalistarako estrategia bat da, zeinak, neurri batean, Estatu Batuetako eredua imitatzen duen eta, are, 2024ko Draghi Txosten txalotuan jada argi eta garbi zehazten hasita zegoen.

Berrarmatzeak gainbeheran dagoen Europako arlo industrial bat indarberritzeko premia larriari erantzuten dio

Estatu Batuetan, gobernuak monopsonio (erosle bakar) baten gisan jokatzten du, guztiz itxia den oligopolio baten irabazi-marjinak berrmatzeko: 2020 eta 2024 artean, soilik bost kontratistak (*Big Five* deitzen zaien horiek) bereganatu zituzten 771.000 milioi dolar Pentagonotik.

Europar, zentralizazio prozesu berdin-berdina gertatzen ari da: Ukrainako gerrak bultzaturik, Europako gastu militarra %17 hazi zen (693.000 milioi dollarreraino), eta aldi berean instituzio komunitarioek *ReArm Europe* plana sustatu dute, baita antzeko beste ekimen batzuk ere; plan horren helburua 800.000 milioi euro mugiaraztea da, zor bateratua jaulkitzearen bitartez, Europako oinarri industrial militarra berregituratzeko eta blindatzeko.

Ekialde Ertainean, gastu militar osoa %15 hazi zen (243.000 milioi dollarreraino), Israelek izugarri bultzatuta. Haren aurrekontu militarra oso denbora laburrean %65 handitu zen, 46.500 milioiraino (barne produktu gordinaren %8,8ra iritsiz, munduko bigarren kargarik handiena). Gastu erraldoi horrek ahalbidetzen du Gazan eta Libano hegoaldean lurra desjabetu eta suntsitu ahal izatea, eta orain, gainera, ia eskualde osora hedatzen hasi dira prozesu horiek.

Era berean, Hegoalde Globaleko tokiko burgesiek eta estatuek kapital militarra erabiltzen dute baliabideen barne kontrolerako eta gizarte errepresiorako: Mexikok %39 handitu zuen bere gastua (16.700 milioi dolar) Guardia Nazionalea eta Itsas Armada finantzatzeko, “krimena borrokatzeko” kanpainapean; finean, barne militarizazio prozesu bat. Myanmarren, gastuak %66ko jauzi izugarria izan zuen (5.000 milioi dolar) barne gatazken kontrako gerrari eusteko. Kasu horietan guztietan, ezegonkortasunaren aurrean jabetza kapitalistaren ordenari eusteko berme fisikoa dira armak.

2024ko datuen arabera, begi bistakoa da NATOko 32 kideek gastua handitu zutela (1.506 bilioi dolar, guztiak batuta), eta zenbait potentziak, esaterako Txinak, euren armategia modernizatzen jarraitzen dutela (314.000 milioi dolar, %7ko igoera; era berean, Japoniak gastu militarra %21ean handitu du, nahiz eta herrialdearen ekonomia txikitzen ari den). Berrarmatze orokortu eta koordinatu hori ez da defentsarako erabaki isolatuen batura, ezpada kapitalismo global bati emandako erantzun sistemikoa, zeinak errentagarritasun arazoak konpondu ezinik, era estrukturalean baliatzen baitu ekonomia belikoa.


Hurrengo lerroetan, Ipar Atlantikoko Tratatuaren erakundea osatzen duten bi bloke nagusiek kapital metaketaren logikaren alde gerra-ahaleginak bideratzeko erabiltzen dituzten zenbait mekanismo aztertuko ditugu. Egungo krisi kapitalistaren testuinguruan, bereziki bizkortuta ikusten da logika hori.

1. ESTATU BATUAK

1.1 Testuinguru historikoa, gobernuaren monopsonioa eta kapital metaketa

Estatu Batuetako sistema estatuaren aparatua-ekin korapilatuta dauden irabazi asmoko korporazio komertzialen sare baten gainean eraikitako dago. Gerra Hotza amaitu ondoren, 1993ko “Azken Afaria” izenarekin ezaguna den ekitaldi historikoan AEBko Gobernuak armagintzako industria-exekutiboek jakinarazi zien ezinezkoa zela sektoreko enpresa guztiei eustea, eta izugarrizko kontzentrazio prozesua bultzatu zuen (l. irudian ikus daiteke). Gaur egun, 2026ko Defentsa Nazionalerako Estrategiak erabat hausten du joera horrekin; izan ere, oraingo joeraren arabera, “fabrika gudu zelaia bezain esanguratsua izan daiteke”, eta industria-oinarria biziberritzea hartu du helburu nagusitzat.

Estatu Batuetako sistema estatuaren aparatua-ekin korapilatuta dauden irabazi asmoko korporazio komertzialen sare baten gainean eraikitako dago



1. irudia. Estatu Batuen ohiko gastu militar zuzenaren eboluzio absolutua eta urtetik urterako aldaketa

Estatua monopsonio gisa

Industria hori biziberritzeko mekanismo nagusia Defentsa Departamentuaren eskuraketen (*procurement*) eta ikerketa, garapen, proba eta ebaluazioaren (RDT&E) kontuen bidezko aurrekontu esleipena da.

Merkatu horretan, Gobernuak monopsonio posizioa dauka; hau da, abangoardiako gaitasun militarren legezko erosle bakarra da, eta horrek erabateko boterea ematen dio. 2000. urte fiskalean I+Gren arloko eskuraketak egiteko finantzaketa konbinatua 100.000 milioi dolar ingurukoa izan zen termino konstanteetan, eta 2024. urte fiskalerako, aldiz, promulgaturiko defentsa-aurrekontuak guztira 910.000 milioi dolar batu zituen^[1].

2026. urte fiskalerako aurreikuspenek erakusten dute estatuaren esku hartzea eskala handiko gerra bateko ekonomiari dagokiona dela. 2026rako aurrekontuak, guztira, 961.000 milioi dolar batu ditu (848.300 milioi arautu gabeko aurrekontuan eta 113.300 milioi gastu finko eta derrigorrezkoen aurrekontuan). Horrek esan nahi du inbertsio zorroa Defentsa Departamentuaren finantzaketa osoaren %40rainokoa dela eta 384.300 milioi dolararrera iritsi dela.

Hazkunde horri *One Big Beautiful Bill Act* (OBBBA) legedi berria promulgatu izana gehitu zaio. Legedi horrek 150.000 milioi dolar gehigarri sartu ditu sektore zehatzetan, eta, horrela, defentsarako gastua bilioi bat dolarreko mugaren gainetik jarri du. Funts horiek modu honetan banatzen dira:

- Itsasontzigintza: 29.000 milioi dolar.
- Misilen aurkako defentsa, munizioak eta azpiegitura, eta ostatua: 25.000 milioi dolar eremu bakoitzean.
- Itsasertzeko Guardia: 23.000 milioi dolar.
- Adimen artifiziala eta eskifaiarik gabeko sistemak: 16.000 milioi dolar.
- Disuasio nuklearra: 15.000 milioi dolar.
- Indo-pazifikoko operazioak: 12.000 milioi dolar.

OBBBA legedi berriaz gain, duela gutxi 200.000 milioi dolarreko sorta gehigarri bat eskatu zaio Kongresuari, Irango gerra dela eta.

Oligopolioa: *Big Five*-en hegemonia

Kapital-itsaso horren banaketak agerian uzten du zeinen muturrekoa den Estatu Batuetako industrian gertatzen ari den kontzentrazioa, bai eta klaseen polarizazioan duen eragina ere. Horntzaileen dibertsifikazioari buruzko diskurtso ofizialak gorabehera, sistemak kapital intentsiboaren eskala bat behar du, eta eskala horri oligopolio batek baino ezin dio eutsi. Estatistika-datuak argigarriak dira: 2020. eta 2024. urte fiskalen artean, enpresa pribatuek 2,4 bilioi dolar jaso zituzten guztira Pentagonoaren kontratuetan, hau da, epe-muga horretan Defentsako Departamentuak arautu gabeko gastuaren %54 inguru.

Dirutza ikaragarri horretatik, 771.000 milioi dolar (maila federalean kontrataturiko guztia- ren ia herena) *Big Five* izenarekin ezagutzen diren bost enpresek bereganatu zituzten. Metaketa korporatibo horren aukera sozialaren kostuaren neurria adierazteko, nahikoa da esatea AEBko Gobernuak bost enpresa pribatu horietan inbertitu zuela diplomaziara, garapenera eta nazioarteko laguntza humanitariora bideratu zuenaren halako bi baino gehiago (356.000 milioi dolar) bosturteko horretantxe.

1.2 Estatuaren arrisku kapitala

Oligopolioiko kontratista handiek (*Big Five* enpresak) menperatutako ekosistemaren eta eskuraketen araudi federalaren (FAR) zurruntasuna saihesteko, Silicon Valley epizentro komertzialek bezain arin eta haien logika beraren pean funtzionatzen duten entitate berezituak diseinatu ditu AEBko Gobernuak. Haien helburua da likidezia injeztatzea *startups* deiturikoak sustatzeko; horretarako, Estatuak bere gain hartzen du banku komertzial pribatuak lehen instantzian saihesten duen lehenengo ikerketa-faseen finantza-arriskua.

Silicon Valley epizentro komertzialek bezain arin eta haien logika beraren pean funtzionatzen duten entitate berezituak diseinatu ditu AEBko Gobernuak

In-Q-Tel (IQT): Inteligentzia Agentzia Zentralak (CIAk) ezarri zuen 1999an, eta formalki, inbertsio estrategikoko enpresa independente eta irabazi asmorik gabeko gisa funtzionatzen du. Haren helburu nagusia ez da finantza-itzulkin tradizionala, baizik eta teknologia disruptiboak azkartzea eta sektore pribatutik sektore publiko-ra transferitzea, segurtasun nazionalako arkitekturaren integrazteko 36 hilabete baino lehenago. IQTk sistematikoki bermatua du boto-eskubiderik gabeko behatzaile eserleku bat berak inbertitzen duen enpresa bakoitzeko administrazio kontseiluan, eta horrek etengabeko ikuskaritza eta zuzendaritza teknologikorako ezkutuko gaitasuna bermatzen ditu.


Haren finantzaketa urtean 60 milioi dolar ingurukoa den arren, haren egiturazko balioa daukan aparteko eragin biderkatzailea da (*signaling effect*): IQTren hasierako inbertsio batek

ukaenezko berme-zigilu gisa jokatzeko du, eta ehunka milioi dolar erakartzen ditu automatikoki arrisku kapital pribatu tradizionaletatik.

Defense Innovation Unit (DIU): 2015ean jarri zen martxan, eta haren sorrerako asmoa berrikuntza komertzialeko nukleoetan txertatzea zen, teknologia zibil helduetara iritsi ahal izateko, ohiko ikerketa militarrean lortu ezin den abiaduran. 2. irudian ikus daitekeen moduan, lehia geopolitikoak egokitzapen bizkorragoa exijitzen zuen heinean, kapital fluxua biderkatu egin zen. Epe laburrean, helburu legegilea da DIU unitatea 1.000 milioi dolarretik gorako kapital masa izango duen potentzia bihurtzea.

Office of Strategic Capital (OSC): 2022an ezarri zuten, eta haren zeregina “kapital pribatua teknologia kritikoetara erakarri eta goratzea” da, Estatuaren laguntzari eutsiz hazi fasetik hasita BPGan kontsolidatu arte (*seed to GDP*).

Defense Innovation Unit (DIU) mekanismoaren finantzaketa-eboluzioa
Startup-ak azkartzeko kapital-injekzioa (2023-2026 urte fiskalak)



2. irudia. DIU mekanismoaren finantzaketa 2023 eta 2026 artean



Zuzeneko maileguak, mailegu bermeak eta laguntza teknikoa emateko aginpidea du. Palanka-efektuko tresnarik indartsuenak hauek dira: SBICCT ekimena (2023), zeinak funts bakoitzeko 175 milioi dolarreko palanka-efektua ematen duen, eta ekipoen finantzaketa, zeinak 10 milioi eta 150 milioi dolar bitarteko mailegu zuzenak ahalbidetzen dituen fabrikazio komertzialeko instalazioetarako. Kongresuak 984 miloi dolarreko mailegu muga baimendu zuen ahalegin horretarako.

Erro-finantzaketa (SBIR eta STTR): Sorre-ra-mailan, Gobernuak milaka mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertain sostengatzen ditu programa horien bidez. 2022. urte fiskalean, agentzia federalek 4.730 milioi dolar inbertitu zituzten

guztira (4.120 milioi SBIRen eta 618,3 STTRen). Historikoki, inbertsio horren zatirik handiena Defentsa Departamentutik dator, urtean 1.000 milioi dolar baino gehiago bideratzen baititu sistematikoki ikerketa-funts horietara.

Laburpen gisa, arrisku kapital sare zabal horren bitartez, Estatuak oso-osorik sozializatzen du ikerketaren eta garapenaren finantza-arriskua. Funts publikoei esker, teknologiek heldutasun maila eta bideragarritasun teknikoa lortzen dutenean, sektore militarreko talde handiek enpresa txiki horiek bereganatzen dituzte edo haien produktuak lizentziatzen dituzte, eta, era horretan, irabazien pribatizazioa bermatzen dute eskala industrialean.

1.3 Diplomazia hertsagarria eta esportazioak


Estatu Batuetako armagintzaren ekoizpen ahalmen ikaragarriari eustea ezin da soilik barne eskariaren mende egon. Ikerketaren eta garapenaren kostu itzelak amortizatzeko, estatuak eskaera kanpora atera beharra dauka. Puntu horri dagokionez, gobernu federalak arrisku kapitalaren erosle edota inbertsore gisa jokatzear gain, salmenta globalen sustatzaile gisa ere jarduten du, bere hegemonia diplomatikoa erabiliz merkatuak ziurtatzeko. Hedatze komertzial hori funtsezko bi mekanismoren bidez egituratzen da instituzionalki: *Foreign Military Sales* (FMS) eta *Foreign Military Financing* (FMF).

Foreign Military Sales (FMS): gobernutik gobernurako mekanismo zorrotz bat da. Nazio aliatuek ez dute gerrarako ehiza-hegazkinik edota misil sistemarik erosten korporazioekin zuzenean negoziatuz; horren ordez, akordio formala (LOA) sinatzen dute AEBko Gobernuarekin. Estatu iparramerikarrak berak erosten die materiala bere kontratista pribatuei, eta, gero, bezeroa den herrialdeari transferitzen dio. Maila estrategikoan eta ekonomikoan, horrek mendekotasun harreman bat inposatzen du arlo logistikoa, mantentze-lanetan eta softwarea eguneratzeko; ondorioz, material hori erosi duten herrialdeak harrapatuta gelditzen dira hamarkada luzez. 3. irudiak eta horri lotutako datuek argi erakusten dute zenbaterainoko balioa eskuratzen den maila internazionallean: hiru urteko batez besteko higikorrak argi erakusten du egiturazko jauzia; izan ere, 55.900 milioi dolarretik (21-23 zerga-aldia) 83.600 milioi dolarrekoa izatera pasa da (22-24 zerga-aldia), eta horrek esan nahi du %49,6ko hazkunde garbia egon dela atzerriko kapitalaren xurgapenean. 2020tik 2024rako bosturtekoan, NATOko 32 herrialde kideek soilik 141.120 milioi dolarreko balioa zuten salmentak metatu zituzten. Salmenten datu-taulak argi uzten ditu hainbat aliaturen partaidetza masiboak; hala nola, Polonia (29.050 milioi USD), Australia (23.310 milioi), Alemania (17.360 milioi), Kanada (10.252 milioi) eta Saudi Arabia (7.616 milioi).

Estatu Batuetako armagintzaren ekoizpen ahalmen ikaragarriari eustea ezin da soilik barne eskariaren mende egon

Foreign Military Financing (FMF): FMS salmentarako administrazio bidea bazen, FMF erakundeak dirulaguntzak ematen ditu zuzenean. Hala, FMFk estatubatuarrek ordaindutako zergak baliatzen ditu itzuli behar ez diren dirulaguntzak (*grants* izenekoak) emateko edota gobernu atzerritar “lagunei” maileguak emateko. Hala ere, nazioarteko “laguntza” hori legezko agindu zorrotz batek baldintzatzen du: dirua soilik erabil daiteke enpresa estatubatuarrei armak, zerbitzuak eta formazioa erosteko. Termino makroekonomikoetan, FMFk dirulaguntza zirkular gisa funtzionatzen du: Estatuak bere zerga-oinarritik aberastasuna ateratzen du, diru hori atzerriko nazio bati uzten dio nominalki, eta hark, kontratuak derrigortuta, berehala itzultzen du kapitala AEBko armagintza oligopolioko diru-kutxa korporatiboetara. FMFren oinarritzko aurrekontu erregularra urtean 6.000 milioi dolar ingurukoa bada ere, kopuru hori txiki geratzen da azken aldiko larrialdiko jabetze osagarrien ondoan. Esaterako, 2023ko urriko gertakizunen ondoren, Israeli emandako laguntza militarra 18.000 milioi dolarretik gorakoa izan zen urte bakar batean, eta Ukrainari eskainitako segurtasun laguntza (2022-2025) 65.000 milioi dolarreko kopuru harrigarriara iritsi da.

Laburtuz, FMSren eta FMFren arkitektura konbinatuak erakusten du diplomazia hertsagarria eta armen esportazioa gainbalioaren gauzatzea kanpora eramateko estatu-tresnak direla. Aliatuak produkzioa bereganatzera behartuz, eta zorpetze publikoa periferiako erosketak finantzatzeko erabiliz, AEBk bere monopolio nazionalen eskala-ekonomiak bermatzen ditu.



* Salmenten bolumenak %238,8ko hazkundea izan zuen 2021 eta 2024 artean

3. irudia. FMS programari lotutako salmenten bitartez eskuratutako irabaziak

FMSren eta FMFren arkitektura konbinatuak erakusten du diplomazia hertsigarria eta armen esportazioa gainbalioaren gauzatzea kanpora eramateko estatu-tresnak direla

1.4 Saiheste burokratikoa eta larrialdiko botereak

AEBko Gobernuak ondo baino hobeto daki bere eskuratze lege estandarrek, Eskuraketan Araudi Federalaren (FAR) menpean egituraturik egonik, mugatu egiten dutela sarritan kapitala injektatu eta balorizatu ahal izateko behar den abiadura. Desadostasun instituzional horiek saihesteko, Estatuak legezko saiheste mekanismoak eta botere betearazleak erabiltzen ditu, eta modu zuzenean esku hartzen du ekonomian, defentsa-produkzioa lehenesteko eta blindatzeko.

Other Transaction Authority (OTA): beste transakzio batzuetako agintaritzak legez lotesleak diren kontratazio tresnak dira, zeinak eskuratze lege eta araudi federal (FAR) gehienetik aske dauden. Mekanismo horren pizgarririk garrantzitsuena da enpresei haien jabetza intelektualaren eskubideak gordetzeko ahalmena ematen diela. 2024. urte fiskalean, Defentsa Departamentuak OTArentzat zituen betebeharrak, prototipoak garatzeko, 16.000 milioi dolarretik gorakoak izan ziren. Gainera, prototipo batek arrakasta eduki eta gero, eskala handiko

“ekoizpenerako OTA” baterako zuzeneko transakzio bat egiten da, eta adibidez, 2024an bakarrik, 2.000 milioi dolarreraino iritsi zen. Araudi federaletatik kanpo jardutean, gobernuak galdu egiten du kontratisten benetako kostuak sistematikoki gainbegiratzeko eta mozkin tarteak ikuskatzeko ahalmena.

Defense Production Act (DPA), III. titulua: defentsa ekoizpenaren legeak (APD) ekonomia pribatuan esku hartzeko aparteko botereak ematen dizkio presidenteari. Zehazki, III. titulua sistematikoki erabiltzen da defentsarako funtsezkotzat jotzen diren eta merkatu librearen presiopean porrot egingo luketen industria nazionalak ezartzea, hedatzea, babestea edota lehengoratzeko finantzatzeko. Haren kuantifikazioak kapital zuzeneko injekzioak erakusten ditu; hala nola 3.200 milioi dolar COVID-19ari erantzuteko (182 konpainiatan banaturik), 100 milioi lur arraroetako imanetan, edota 50 milioi arma hipersonikoetarako material konposatueta. 2026. urte fiskalerako, DPA legearen III. titulua-ren peko kontuak 2.000 milioi dolar inguruko aurrekontu baliabide totala erabili ahal izango du.

Zerga-salbuespenak eta subsidio periferikoak

Lehia askearen edo karga fiskal arruntaren menpe egon beharrean, sektore industrial-militarrak zerga-ingeniaritza estraktiboa darabil Altxor Publikotik zuzeneko errentak erauzteko.

Zerga-ingeniaritza estraktiboa: OBBBA lege berriak I+G nazionalako gastuen berehalako kenkari osoa berrezartzen du 2025etik aurrera; horrela, urtean 31 milioi dolar baino gutxiagoko diru-sarrera gordinak dituzten enpresei kenkari hori atzera eginezko moduan aplikatzeko aukera ematen die 2022-2024 urteetarako (174. sekzioa). Emaita: I+G inbertsio berrietarako zerga tasa marjinal efektiboa (METR) -%30,3koa da, eta inbertsioa zorrarekin finantzatzen bada, tasa efektiboa -%47,2ra iristen da.

Laguntza periferikoak: *Export-Import Bank* izenekoak (EXIM) erabilera bikoitzeko teknologien eta defentsaren inguruko sektoreen finantza-arriskua diruz laguntzen du. Bestalde, gobernuak erregai fosilen industriari eusten dio kenkari fiskalekin eta zuzeneko dirulaguntzeekin, zeinak urtean 10.000 milioi eta 52.000 milioi

I+G inbertsio berrietarako zerga tasa marjinal efektiboa (METR) -%30,3koa da, eta inbertsioa zorrarekin finantzatzen bada, tasa efektiboa -%47,2ra iristen da


dolar artekoak izatera iristen diren. Energiaren prezio baxuei era artifizialean eutsita, estatuak defentsarako oinarri industrialaren funtzionamendu-kostu nagusietako bat ezabatzen du.

1.5 Egituraren sintesia

Aurreko ataletan azaldutako finantza- eta lege-gintza-arkitekturaren azterketak garbi erakusten du estatuak arlo militarrean duen rol aktiboa. Estatu Batuetako datuek adierazten dutenez, XXI. mendeko sektore industrial-militarrak, funtsean, korporazio publiko-pribatu erraldoi gisa funtzionatzen du, zeinetan estatuak sistematikoki bere gain hartzen dituen ikerketa-, kapitalizazio- eta salmenta-arriskuak, eta, aldi berean, irabaziak oso errotuta dagoen oligopolio batean pribatizatzen dituen. Horrekin batera, oligopolio horrek estatuak ematen dion ikuspegi estrategikoaren arabera jarduten du.

Honako eskema honetan, estatuak zenbait fasetan edo eremutan duen parte hartze maila laburtu nahi izan da, eta zenbatetsitako balioak eman dira, atal osoan zehar aipaturiko zati bakoitzean mekanismo ekonomiko bakoitzak zer pisu hartzen duen kalkulaturat^[2].

Estatu Batuetako datuek adierazten dutenez, XXI. mendeko sektore industrial-militarrak, funtsean, korporazio publiko-pribatu erraldoi gisa funtzionatzen du



FMS eta kanpora ateratzea: *FMS salmentak* (117,9 mila milioi 2024an) **ez dira grafikoan ageri** estatuaren gastu gisa; aitzitik enpresentzako irabazi bermatuen kanal gisa funtzionatzen dute. Estatuak, diplomazia koertzitiboaren bitartez, nazio aliatuak behartzen ditu arma nazionalak erostera, oligopolioaren eskala-ekonomiak mantentzeko.

FMF eta salbuespen fiskalak: FMFak subsidio zirkular gisa funtzionatzen du, AEBko zergak erabiltzen baititu herrialde horri armak erosten dizkioten beste herrialde batzuk finantzatzeko. Bestalde, *174A sekzioak (TCJA)* **~%30,3ko** zerga-tasa marginal neto negatiboa eragiten du (kuantifikazio ofizialik ez dugunez, lodiera grafiko sinbolikoa esleitu zaio).

Ihesa (OTA) eta Iran: 18 mila milioitik gorako OTA kontratuei esker, posible da gobernu-kostuen auditoretzei ihes egitea. Aldi berean, Iraneko gerrara zuzendutako 200 mila milioiko ezohiko paketea oraindik ez da gauzatu, baina agerian jartzen du estatuak nahikoa malgutasun duela eskariaren arabera finantzaketa belikoa puzteko.

Ohar bisuala: Tamainak eta balioak bolumen osoaren ehuneko erlatiboaren arabera egokitu dira. TCJA salbuespenei pisu sinboliko bat esleitu zaie kalkulu honetan, haien inpaktu fiskal sakona modu grafikoan islatze aldera (~%30,3ko tasa marginala).



Ongizate estatuaren ereduaren bilaketak eta klase ertainen sustapenak bultzaturiko “erlaxazio-aldi” baten ondoren, gero eta gordinagoa den inperioen arteko lehiaren aurrean, Europak bere mekanismo instituzional guztiak martxan jarri ditu kontinentea berrarmatzeko eta berrindustrializatzeko

2. EUROPA

Ongizate estatuaren ereduaren bilaketak eta klase ertainen sustapenak bultzaturiko “erlaxazio-aldi” baten ondoren, gero eta gordinagoa den inperioen arteko lehiaren aurrean, Europak bere mekanismo instituzional guztiak martxan jarri ditu kontinentea berrarmatzeko eta berrindustrializatzeko. Estatu Batuetan ez bezala, hainbat eta hainbat mekanismo ekonomiko iragankor abiatu dira estatuz gaindiko finantzaketa eredu bat ezartzeko.

2.1 Kapitala zuzenean injeztatzeneko mekanismoak

Zuzeneko finantzaketa

Europako Defentsa Funtsak (EDF) ia 8.000 milioi euroko hornidura jaso zuen: 2.700 milioi ikerketara bideratu zituzten, eta 5.300 milioi gaitasunen garapenera. Sare zibilaren kooptazioa sistematizatzeko, EUDISEk Bruselako arrisku kapitalaren enpresa gisa jarduten du, 2.000 milioi euroekin (336,6 milioi bereganatu ditu, EDFren %31 2025ean); eta horri FAST tresna gehitzen zaio, 150 milioirekin, likidezia injeztatzen eta atzerriko kapitalek *startup* estrategikoak eros ez ditzaten.

Bakea sustatzeko Europako funtsak (EPF), nahita diseinatu zena Europar Batasuneko Tratatu 41(2) artikulua saihesteko aurrekontuz kanpoko mekanismo gisa, 170.000 milioi euro baino gehiagoan igo zuen bere muga. Dirulaguntzen eskema zirkular erraldoi bat balitz bezala jarduten du: ekipoen emaitzak egiten dituzten

estatuak diru-itzulketa partziala bermatzen die, eta armategiak husteratzen, eta kontratu berriak egitera bultzatzen ditu. Blokeo politikoak saihesteko, Hungariako betoa kasu, aktibo subirano errusiar geldiarazien mozkinen %90 konfiskatzea baimendu zen (2024an 1.500 milioi eta 2025erako 2.000 milioi injeztatuz), eta ULCM mekanismoa egituratu zen, 18.100 milioi euroko ezohiko zorra jaulkiz.

Dirulaguntzak eta salbuespenak

Korporazioek egindako inbertsioa berreskuratzen dela ziurtatzeko, ASAPek (500 milioi euro) ekoizpenaren eskaintza fisikoa diruz laguntzen du, eta EDIRPAk (310 milioi) erosketa bateratuen eskaria diruz laguntzen du. Epe ertainean, EDIP programak 1.500 milioi euro mobilizatzen ditu, eta SEAPak sortzen ditu; egitura horiek nazioarteko organizazio estatusa hartzen dute, eta horrek BEZaren %20ko eta zerga berezien salbuespen masiboak ekartzen ditu.

Berrarmatzeko mega-planaren ardatz eraldatzailea SAFE tresna da, zeinak 150.000 milioi eurorainoko maileguak injeztatzen dituen. EBk bonu arruntak jaulkitzen dizkie gobernuari 45 urterainoko amortizazio epearekin. Horien inpaktuak Europako gastu arrunteko erritmoaren %25 gaintzen du, eta zenbait potentziak onura jasotzen dute, hala nola Poloniak (43.700 milioi euro), Errumaniak (16.700 milioi), Frantziak eta Hungariak (16.200 milioi) eta Italiak (150.000 milioi).

***Bakea sustatzeko
Europako funtsak (EPF),
nahita diseinatu zena
Europar Batasuneko
Tratatuko 41(2) artikulua
saihesteko aurrekontuz
kanpoko mekanismo
gisa, 170.000 milioi
euro baino gehiagoan
igo zuen bere muga***

Europako Inbertsio Bankuaren biraketa (EIB)

Banku komertzialen ESG araudiak zuzentzeko, EIBk (Europako Inbertsio Bankua) bere estatutu mugak desegin zituen, eta muga orokorra marka guztiak hautsi zituen 100.000 milioi euroko zenbatekora igo zuen 2025erako. Kopuru horretatik, %4,5 (4.500 milioi euro) oso-osorik segurtasun- eta defentsa-sektorerara bideratzea erabaki zen, eta, horrela, 2024an emandako 1.200 milioiak ia laukoiztu egin ziren.

2.2 Lege aldaketak, aparteko ahalmenak eta planak edota politika aldaketak

Erregulazioak eta industria-estrategiak

Defence Readiness Omnibus paketeak funts zibilen hautagarritasuna (*Cohesion, Horizon Europe*), aldatu zuen “erabilera bikoitzeko” teknologiak finantzatzeko. Esparru horrek ingurumen-burokrazia desegin du, eta korporazio militarrei 42.500 eta 51.300 milioi euro bitarteko zuzeneko aurrezki proiektatua eragingo die 2026tik 2036ra bitarteko hamarkadan. Arrakasta politikoa tokiko ekosistema zibila xurgatzean datza; Euskadin (4.000 milioi euro baino gehiagoren hartzailea), ITP Aero enpresak funts “berdeak” bahitzen ditu industria militarra indartzeko, *Clean Aviation* programan (700 milioiz hornitua) parte hartzearen bitartez.

Industria-estrategiak (EDIS) nahitaez bete beharreko helburuak ezartzen ditu: erosketen aurrekontu nazionalen %50, gutxienez, Europako hornitzaileei bideratzea (%60, 2035rako), eta Europakoak ez diren osagaiak %35era mugatzea (*Buy European*). Horrez gain, EDIP araudiak

larrialdi ahalmenak ezartzen ditu, eta, ondorioz, krisi egoeretan, industria-kontrartistek eskaera militarrei lehentasuna eman behar diete, dituzten konpromiso zibilen gainetik.

ReArm Europe eta Readiness 2030

Egitasmo horrek hurrengo hamarkadan 800.000 milioi euro mobilizatzeko helburua dauka. Ezin denez zuzeneko hain zerga-bilketa handirik egin, zor bateratua (SAFE) erabiltzen da, eta ihes klausula nazionala deritzona aktibatzen da. Horren ondorioz, gastu militarra defizitaren mugen barruan konputatzetik salbuetsita geratzen da, 650.000 milioi eurorainoko eremu fiskal artifizial bat sortuz, zeinak estatuei monopolio militarren alde zorpetzeko askatasun osoa ematen dien.

2.3 Militarismoaren egitura sendotzea, mugak eta gizarte ongizatearen hondatzea

Behin betiko kontsolidazioa 2028.-2034. aldirako urte anitzeko finantza-esparruan (MFP) gauzatuko da. Lehiakortasunerako Europako Funts berriaren barruan (409.000 milioi euro), 130.700 milioi bideratuko dira oso-osorik defentsarako eta espaziorako, hau da, guztizkoaren ia herena (%31,96), eta aurreko zikloaren oinarria halako hamar.

“Autonomia estrategikoa” bilatu arren, Estatu Batuekiko mendekotasuna saihetsezina da. Europak FMS kanal estatubatuarren bitartez eginiko erosketek %89ko igoera ikaragarria izan zuten 2021 eta 2022 artean. Bestalde, Europako industriak ekoizpen zurruntasun handia eta ito guneak dauzka; likidezia masiboki injeztatzeak inflazio sektorial larriagoa dakar, besterik gabe.

Benetako kostua langile klaseak hartuko du bere gain, bizi baldintzak okertuko baitzaizkio. Berrarmatze hori zorraren bidez finantzatzeak bonu subiranoak ezezonkortuko ditu: Alemaniako *Bund*-ak oinarritzko 40 punturainoko (%2,9) igoerak izan ditzake, eta horrek modu katastrofikoan igoko lituzke diferentzialak (*spreads*), bai eta zorraren kostua ere periferian. Barne produktu gordinaren %1 eta %2 artean hezkuntzatik, osasungintzatik eta trantsizio berdetik oligopolio militarren mugitzea aukera-kostu suntsitzailea da, eta aberastasunaren transferentzia-mekanismo erregresibo ikaragarria.



*Lehiakortasunerako Europako
Funts berriaren barruan
(409.000 milioi euro), 130.700
milioi bideratuko dira
oso-osorik defentsarako
eta espaziorako, hau da,
guztizkoaren ia herena
(%31,96), eta aurreko zikloaren
oinarria halako hamar*

3. ONDORIOAK

Produkzio modu kapitalistaren pean gerra ez da anomalia bat, ez diplomaziaren porrota, ezta saihestu ahal den tragedia bat ere; egiturazko beharrizan saihetsezina da. 2024ko kopuru errekorrak, 2,718 bilioi dolarreko gastu militar globalarekin, ez dira mundu irrazional baten isla, ezpada errentagarritasun errukigabearen logikapean jarduten duen sistema batena. Joko taula horretan, estatuen zeregina –eta, bereziki, NATO osatzen duten estatuena, 1,506 bilioi dolarren edo munduko gastuaren %55en erantzuleak baitira– erabat desmitifikatua geratzen da. Estatu kapitalista modernoak ez da denon ongizatea zaintzen duen arbitro neutrala, burgesia monopolistaren metaketa bermatzeaz arduratzen den komite exekutiboa baizik.

Egindako analisiak agerian utzi du estatuak elkarri lotuta dauden bi formatan hartzen duela bere gain rol hori, eta bi forma horiek ezinbesteko bihurtzen dute gerra.

Estatua merkataritza- eta lurralde-inperialismoaren bermatzaile gisa: kapitalismoa, metaketa eta zentralizazioa funtsezko ezaugarri dituen heinean, sistema hedakorra da, eta, ondorioz, nahitaez inperialista da haren fase gorenean. *Foreign Military Sales* (FMS) eta *Foreign Military Financing* (FMF) programen bitartez, Estatu Batuek egiten duten diplomazia hertsatzailea adibide ezin hobe da ikusteko nola estatuak bere hegemonia erabiltzen duen herrialde aliatuak eta periferikoak behartzeko haren industria nazionalaren gehiegizko produkzioa beregana dezaten.

Gerraren aldeko gerra (estatu errentagarritasun kapitalistaren gordetzaile): kapital pribatuaren eraketa gelditu egiten denean, irabazi tasak erortzeko duen joeragatik, gerrak merkatu artifizial bat sor dezake. Sektore industrial-militarra hustubide ezin hobe da: suntsitzeko, biltegiratzeko edota zaharkitutzat jotzeko ondasunak ekoizten ditu. Mega-zorpetzearen bidez, NATOko estatuak teknologia-arriskuak sozializatzen

*Produkzio modu
kapitalistaren pean gerra
ez da anomalia bat, ez
diplomaziaren porrota,
ezta saihestu ahal den
tragedia bat ere; egiturazko
beharrizan saihetsezina da*

dituzte haien enbrioi faseetan. Estatu Batuetan, hori oligopolioaren *Big Five* direlakoetan kontzentratzen diren 771.000 milioi dolarretan ikusten da; Europan, berriz, zor bateratuaren bidez 800.000 milioi euro baino gehiago mobilizatzeko plan bortitzean, eta 130.700 milioi soilik defentsa eta espaziora bideratuta 2028-2034 aurrekontu-ziklorako esleipenean. Zifra horietatik eta jada hain errentagarriak ez diren beste sektore batzuetatik egindako kapital-mobilizazio guztitik eta defentsa-sektore osoaren mozkin izugarrietatik ondorioztatu daiteke sakrifizioa baino gehiago, gerra-ekonomiak interes argia pizten diola kapitalari dezelerazio edo krisi garaian. ●

KONTSULTAGAI INTERESGARRIAK

U.S. Department of Defense. (2025). *2025 National defense strategy of the United States of America*. U.S. Department of Defense.

Draghi, M. (2024). *The future of European competitiveness: A competitiveness strategy for Europe*. European Commission.

Stockholm International Peace Research Institute. (2025). *SIPRI military expenditure database*.

Costs of War. (n.d.). Costs. Watson Institute for International and Public Affairs, Brown University. <https://costsofwar.watson.brown.edu/costs>

Mattick, P. (1959). Economics of the war economy. *American Socialist*, 6(4).

Vranken, M. (2023). *Fanning the flames: How the European Union is fuelling a new arms race*. Transnational Institute (TNI) & European Network Against Arms Trade (ENAAT).

OHARRAK

[1] Grafikoan eta testu barruan ageri diren zifrak desberdinak dira grafikoan gauzatu-tako gastua ageri delako eta testuan, berriz, aurrekontua aipatzen delako.

[2] Proportzioak zenbatetsi egin dira; izan ere, ez dago mekanismo bakoitzaren zenbateko zehatzik urte bererako. Balioak doitu egin dira, oinarri hartuta 2022 eta 2025 artean ezagutzen ditugun datuak.





GERRA GARAIKIDEA ETA DELEGAZIO GERREN MUGAK

Testua — **Danel Errazu**



Azken urteetako gatazkek –Ekialde Hurbiletik Ekialdeko Europaraino, Saheletik Asia-Pazifikoraino– eta gero eta ozenago jotzen diren gerra-tronpetek, mundu mailako tentsioaren gorakada agerian utzi dute. Hala ere, konfrontazio hori ez da beti modu zuzenean eta ikusgarrian agertzen: askotan, zigor ekonomikoan, presio diplomatikoaren, zibererasoen edo delegazio bidezko gatazken bidez egiten da. Horregatik, ezin da gaur egungo gerraren ulerkera ikuspegi militar hutsera mugatu.

Aldaketa horiek ez dira ausaz gertatu. Mundu ekonomikoaren berrantolaketak, potentzia berrien agerpenak eta krisi kapitalistak inperialismoa areagotu dute.

Artikulu honen abiapuntua ideia sinple bat da: kapitalismoaren parte estrukturala da gerra, baina haren formak historikoki eraldatzen dira. Helburua konfrontazio hori nola antolatzen den ulertzea da, zein diren bere adierazpen nagusiak eta zer muga dituen gaur egungo gerra ereduak.

GATAZKA INPERIALISTAREN OINARRI EKONOMIKOAK

Gerra kapitalisten lehen teoriariek gerra kaosarekin eta ziurgabetasunarekin lotzen zuten. Gerra napoleonikoetan aritutako Carl von Clausewitz arabera, gerra hiru elementuren arteko tentsio dinamikoaren emaitza da: herrien pasioak eragindako indarkeria itsua, zoriaren eta probabilitateen jokoa, eta gobernuen zuzendaritza politikoa. Hiru dimentsio horiek etengabeko desorekan mantentzen dira eta horrek gerrari izaera kaotikoa ematen dio.

Gerra kapitalistak hartzen duen itxura kaotiko horren atzean, ordea, ez dago zori hutsa. Aitzitik, ordena kapitalista erreproduzitzeko ezinbestekoak diren joerak daude, errentagarritasunaren bilaketan. Gerraren itxura kaotikoa, beraz, azaleko fenomeno besterik ez da. Hori ulertzeko, beharrezkoa da kapitalaren barne-dinamiketara jotzea; ezinbestekoa da aztertzea nola pilatzen diren, nola zentralizatzen eta nola zabaltzen diren mundu osoan zehar kapitalaren garroak.

Ildo horretatik, gerra garaikidea ezin da kapitalaren kontzentrazio- eta zentralizazio-joe-retatik bereizi. Kapitalaren funtsezko joerak dira horiek: lehenak, akumulazio bidez ekoizpen-unitateak handitzeari egiten dio erreferentzia; bigarrenak, berriz, kapital batek beste bat xurgatzeari. Vladimir Leninek azpimarratu zuen lehiak berak bultzatzen duela ekoizpenaren kon-

tzentrazioa eta horrekin batera, monopolioen sorrera. Hau da, sektore osoak menderatzeko gai diren unitate-ekonomiko erraldoiak sortzen ditu lehiaren logikak.

Prozesu horrek forma konkretuak hartzen ditu kapitalen integrazioan. Alde batetik, integrazio horizontalaren bidez, sektore bereko enpresak bateratzen dira, merkatu-kuota handiagoak kontrolatzeko; bestetik, integrazio bertikalaren bitartez, ekoizpen-kate osoaren kontrola beregatatzen da, lehengaien ustiaketatik hasi eta banaketaraino. Modu horretan, kapitalak gero eta eskala handiagoan kontzentratzeko joera hartzen du.

Joera hori, ordea, ez da enpresa mailan soilik geratzen eta eraldaketa sakonak eragiten ditu. Nikolai Bukharinen arabera, kapitalaren zentralizaziorako joerak berebiziko garrantzia du inperialismoaren fasean, izan ere, joera horren eraginez, kapitalistak ez dira jada sakanatutako agenteak, estatu-egituren baitan antolatu eta kapital-bloke nazionalak eratzen baitituzte. Horrela, enpresa mailako kontzentrazio eta integrazio prozesuek eskala handiagoan erreproduzitzen jarraitu, eta ekonomia nazional osoen artikulazio eta lehia sistema eratzen dute. Ondorioz, honela berrantolatzen da munduko ekonomia: estatuen bidez lehiatutako kapital blokeen sistema gisa. Joera horrek, bere adierazpen garatuenean, lurralde eta ekonomia osoen gaineko kontrolerako disputa dakar, estatuen arteko lehia politiko eta militarrean islatzen dena.

Ildo beretik, ezin da kapitalismoa ulertu estatuen eta kapital handiaren arteko koordinazio gero eta handiagoa kontuan hartu gabe. Finantza-kapitala –industria-kapitalaren eta bankuen batasunak– ekonomia menderatzeaz gain, botere politikoarekin artikulatzen da. Horrela, estatua ekonomiaren antolatzaile kontziente bihurtzen da, eta horrenbestez, akumulaziorako baldintzak bermatzeko, sektore estrategikoak babesteko eta garapen ekonomikoa zuzentzeko ahalmena du.

Ondorioz, kapitalaren kontzentrazio- eta zentralizazio-prozesuek koordinazio politiko zentralizatuagoa eskatzen dute ezinbestean. Kapital-bloke nazionalen sorrera ez da, beraz, fenomeno ekonomiko hutsa, estatuaren papera bera eraldatzen baitu, kapitalaren antolakuntza orokorraren funtsezko egitura bihurtzeraino. Horrela garatzen da kapitalaren eta estatuaren arteko erlazio organikoa.

Kapitalaren zentralizazioaren bidez, enpresa mailako kontzentrazio eta integrazio prozesuek eskala handiagoan erreproduzitzen jarraitu, eta ekonomia nazional osoen artikulazio eta lehia sistema eratzen dute. Ondorioz, honela berrantolatzen da munduko ekonomia: estatuen bidez lehiatutako kapital blokeen sistema gisa

Horren haritik, bankuak –eta bereziki banku zentralak– funtzio erabakigarria betetzen du. Finantza-kapitalak kredituaren eta inbertsioen gaineko kontrola bereganatzen duen neurrian, banku zentrala kapital horren koordinazio-istantzia goren bilakatzen da: kapital-fluxuak erregulatzen ditu, agente ekonomikoak diziplinatzen eta sistemaren egonkortasun orokorra bermatzen. Alde horretatik, banku zentrala sistemaren “finantza-garuna” dela baieztatu daiteke.

Finantza-kapitalaren, estatuen eta banku zentralen arteko artikulazioek inperialismoari jarduteko koherentzia eta batasuna ematen diote, barnean interes eta frakzioen arteko talkak dituzten arren. Bloke horiek ez dira enpresen elkarketa hutsak; aitzitik, bankuak, industria eta estatu-aparatuak modu integratuan artikulatzen dituzten egitura konplexuak dira. Ondorioz, ez dira kapital isolatuak lehia internazionalen aurrez aurre jartzen direnak, gaitasun ekonomiko, finantzario eta militarra modu koordinatuan mobilizatzeko gai diren egitura politiko-ekonomikoak baizik. Horri dagokionez, Leninek planteatutako moduan, inperialismoa finantza-kapitalaren politika gisa ulertu behar da: estatuen bidez artikulatzen den hedapen eta lehia forma, zeinak mundu mailako botere-harremanak egituratzen baititu.

Hala ere, kapital monopolistak ez du estatuen edo bankuen papera soilik eraldatzen, izan ere, kapitala mundu osoan zehar hedatzen den modua ere eraldatzen du. Kapitalaren esportazioa inperialismoaren ezaugarri nagusienetakoa da. Funtsean, kapitala errentagarritasun handiagoko lurraldeetara lekualdatzen da; izan inbertsio, kreditu edo azpiegitura moduan.

Kapitalaren esportazioak egiturazko behar bati erantzuten dio. Izan ere, ekonomia zentraletan, kapital-metaketa masiboak eta merkatuaren saturazioak errentagarritasunaren gainbehera eragiten dute. Presio horrek balioztatze-baldintza hobeak eskaintzen dituzten espazioetara bultzatzen du kapitala: lan-indar eta baliabide merkeagoak, erregulazio ahulagoa edo kontrol politiko handiagoa duten lurralde periferikoetara. Kapital esportazioa, beraz, metaketa kapitalistaren barne-kontraesanen adierazpen zuzena da, irabazi tasaren beheranzko joeraren aurkako behin-behineko konpentsazio mekanismoa.

Kapitalaren hedapenak espazio ez kapitalistak bereganatzeko eta espazio kapitalistak etengabe birkonfiguratzeko joera du. Horrela, merkatu-harremanak esfera berrietara hedatzen dira eta kapitalaren balioztatze-logika gero eta lurralde gehiagotara zabaltzen da.

Bukharinen arabera, kapitala beste lurraldeetan ezartzeak ez du soilik merkatu berriak irekitzea eta irabaziak eskuratzea ahalbidetzen; lurralde horien integrazio behartua ere eragiten du. Kapitalaren hedapenak, bere behar propioen arabera, ekonomia horien egitura berrantolatze-joera du. Horrela sortzen dira menderakuntza-harremanak, esportaziora bideratutako azpiegituren bidez, kanpo-eskaeraren menpeko ekonomia sortuz eta estatuak finantza internazionalen menpeko bihurtuz, alegia. Aurrerapen gisa agertzen denak, beraz, integrazio behartua eta menderakuntza dakartza, merkatu nazionalen erabateko anexio ekonomiko eta politikoa barne.

Prozesu hori ekoizpenaren globalizazioaren oinarria da. Gaur egungo balio-kate globaletan, merkantzien diseinua, fabrikazioa eta muntaketa herrialde desberdinetan egiten dira. Lanaren nazioarteko banaketa errentagarritasunaren arabera berrantolatzen da, eta zentro inperialistetan balio handiko jarduerak kontzentratu eta lan intentsiboko prozesuak periferiara desplazatzen dira. Arghiri Emmanuelen arabera, egiturazko desberdintasun hori nazioarteko truke-harremanen bidez ere erreproduzitzen da, truke desorekatuaren bitartez: lan intentsiboagoa duten ekonomiek –oro har periferikoek– sortutako balioa ez dute osorik bereganatzen.

Ondorioz, kapitalaren esportazioa, inperialismoaren funtsezko mekanismo gisa, zentro inperialistako kapitalaren errentagarritasuna bermatzeko tresna da. Aldi berean, ekoizpen kapitalista mundu osoan zehar hedatu eta antolatzen du, eta garapen desorekatuan sakondu.

Kapitala beste lurraldeetan ezartzeak ez du soilik merkatu berriak irekitzea eta irabaziak eskuratzea ahalbidetzen; lurralde horien integrazio behartua ere eragiten du. Kapitalaren hedapenak, bere behar propioen arabera, ekonomia horien egitura berrantolatze-joera du



Kapitalaren esportazioak, hedatzeko behar mugagabeak eta merkatuen anexioak inperialismoa muturrera daramate. Une horretan, gerra ez da salbuespen bat, kontraesan horiei irtenbidea emateko muturreko mekanismoa baizik, finantza-kapitalak ezinbestekoa baitu lehia ekonomikoak erabaki ezin duena indarrez berrantolatzea

Are gehiago, kapital finantzarioaren garapenak eta nazioarteko hedapenak ez du lehia desagerrarazten, eraldatu egiten du. Kapitala konzentratu eta estatuarekin artikulatu ahala, lehia isolatutako enpresen artekoa izatetik estatu mailan antolatutako kapital-blokeen artekoa izatera igarotzen da. Baldintza horietan, lehia horren luzapen gisa agertzen da gerra, beste bitarteko batzuekin.

Bloke bakoitzak bankuak, industria eta estatutatu-aparatuak bere baitan integratzen ditue-nean, merkatuen, baliabideen, lan-indarraren edo ibilbide estrategikoen gaineko talkak ezin dira jada esparru ekonomiko hutsean ebatzi. Kapitalaren esportazioak, hedatzeko behar mugagabeak eta merkatuen anexioak inperialismoa muturrera daramate. Une horretan, gerra ez da salbuespen bat, kontraesan horiei irtenbidea emateko muturreko mekanismoa baizik, finantza-kapitalak ezinbestekoa baitu lehia ekonomikoak erabaki ezin duena indarrez berrantolatzea.

Ekonomiaren nazioartekotzeak berak aurkakotasun horiek sakontzen ditu, izan ere, ekonomiak gero eta interkonektatuagoak izan, orduan eta zuzenagoa da burgesia nazionalen interesen arteko talka. Ekoizpenaren eta finantzen globalizazioak, harmonia sortzetik urrun, tentsio-guneak biderkatzen ditu: hornidura-kateak, lehengaietarako sarbidea, kontrol teknologikoa edo merkatuen gaineko kontrola lehia estrategikoaren ardatz bihurtzen dira. Horrela, mundu-ekonomiak mugak desagerrarazi ordez, ga-

Merkatu globala artikulatzen duten prozesuek beraiek sortzen dituzte, aldi berean, merkatu horren kontrolaren gaineko disputa, bitarteko ekonomiko, politiko eta militarren bidez. Horrela, gerra ez da salbuespen bat, kapitalismoaren fase inperialistan errotutako konstante historiko bat baizik

tazka-espazio trinko eta estrategiko bihurtzen ditu. Hori dela eta, estatuek –burgesiaren komite zentral gisa jokatzten dute– funtzio aktiboagoa hartzen dute, protekzionismo eta muga-zergen bidez barne-merkatua babestuz eta kanpoan hedapen ekonomikoa eta merkatu berrien irekiera sustatuz. Barne-babesa eta kanpo-hedapena prozesu beraren bi aurpegi dira, Bukharinek azpimarrazten duen bezala.

Aldi berean, botere-instantzia supraestatalak garatzen dira –nazioarteko erakunde ekonomiko, finantzario, politiko eta militarrek–, eta mundu mailako ordenaren antolaketan parte hartzen dute.

Ondorioz, inperialismoak integrazio ekonomikoa eta konfrontazio geopolitikoa uztartzen ditu. Merkatu globala artikulatzen duten prozesuek beraiek sortzen dituzte, aldi berean, merkatu horren kontrolaren gaineko disputa, bitarteko ekonomiko, politiko eta militarren bidez. Horrela, gerra ez da salbuespen bat, kapitalismoaren fase inperialistan errotutako konstante historiko bat baizik.

Hori dela eta, bakea ez da egoera iraunkorra inperialismoan. Gatazka ez da desagertzen gerra gabeko garaietan; aitzitik, indarkeriaren mehatxuak berak geldiarazten du eta “bake” egoera erlatibo hori mantentzeko ohiko mekanismoak dira armamentuaren pilaketa, prestaketa militarra edota hedapen estrategikoak. Horrela, gerra ez da agertzen gatazka pizten denean bakarrik, sistemaren dinamika osoan presente dago, modu latentean.

Gainera, “bake” garaian ere, gaitasun militarrek harreman ekonomikoak baldintzatzen ditu. Itun ekonomiko, komertzial eta finantzarioak, azken batean, indar-korrelazio militarren gainean eraikitzen dira. Indar hori, gainera, aktibo bihurtzen da akordio mesedegarriak eskuratu edo inposatzeko. Ildo horretan, Clausewitzek planteatutako ideia iraul daiteke: gerra politikaren jarraipena da beste bitarteko batzuekin eta, aldi berean, politika bera ere gerra potentzial horren menpe antolatzen da. Horrela, ekonomia, politika eta gerra batasun beraren hiru momentu jarraikor direla agerian geratzen da.

Kapitalismoaren fase inperialista, beraz, sistemaren erreproduzio modu zabaldua da. Kapitalaren metaketaren kontraesanez eta errentagarritasunaren presioek tentsio estruktural iraunkorra sortzen dute, eta baldintza horietan finantza-kapitalaren uneoroko errealtate bilakatzen da gerra inperialista.



Gerra politikaren jarraipena da beste bitarteko batzuekin eta, aldi berean, politika bera ere gerra potentzial horren menpe antolatzen da. Horrela, ekonomia, politika eta gerra batasun beraren hiru momentu jarraikor direla agerian geratzen da

Izan ere, kapitalaren muturreko zentralizazio mekanismoa da gerra, kapital masa handiak desagertu edo xurgatzen baitira eta irabaziak gero eta agente gutxiagoren esku kontzentratzen. Horrela, gerra, kapital guztientzat funtzionala izatetik urrun, haren posizio hegemonikoa indartzen duten kapital frakzio nagusientzat da nagusiki funtzionala. Suntsiketa hutsa izatetik at, kapitalak haren metatze-baldintzak bortizki berrantolatzeko duen mekanismoa da: merkatuak birbanatu, hierarkia berriak ezarri eta balorizazioarako espazioak irekitzeko.

Botere suntsitzailearen eta indar produktiboen suntsiketa masiboaren errentagarritasunaren itxurazko kontraesana argitzeko, beharrezkoa da ekoizpen militarra eta gerraren balorizazio-funtzioa aztertzea.

Ildo beretik, armagintza-industria funtsezko sektorea da inperialismoan. Gainmetaketa testuinguruetan, kapital masa handiak xurgatzeko gaitasuna du, merkatu zibilaren muga zuzenetatik harago, estatua bera baita haren bezero nagusia. Horri gehitzen zaio gerraren eta ondorengo berreraikuntzaren funtzioa: suntsipenak kapital finkoaren balioa deuseztatzen du eta, aldi berean, inbertsio-ziklo berriak irekitzen ditu azpiegiturretan, energian edo finantza-esparruan. Horrela, gerra eta berreraikuntza ez dira aurkako

fenomenoak, baizik eta metaketa kapitalistaren une osagarriak.

INPERIALISMOAREN MEKANISMOAK

Oinarri material horiek ez dira abstrakzio hutsean geratzen; aitzitik, eguneroko jardun politiko eta ekonomikoan adierazten dira. Kapitalen arteko talkak ez dira soilik ekoizpenaren edo merkatuen mailan gauzatzen, presio ekonomiko, finantzario eta politikoen bidez ere garatzen dira, eta bote-re-harremanak etengabe berrantolatzen dituzte.

Hasteko, gatazka ekonomiko hedatua talka horren adierazpen nagusietako bat da. Zigor ekonomikoak, muga-zergak, merkataritza- eta finantza-blokeoak edo baliabide estrategikoen kontrola kapitalaren tresna sistematikoak dira. Errusiaren aurkako zigorrak Ukrainako gerraren testuinguruan edo AEBk Txinaren teknologia arreratuaren esportazioari ezarritako murrizketak nazioarteko balio-kateen kontrola birbanatzeko saiakerak dira. Finantza-sistamarako sarbidea mugatzeak –SWIFT sistematik kanporatzea, esaterako– edo presio-tresna gisa dolarraren nagusitasuna erabiltzeak erakusten du lehia ekonomikoa botere-harremanetan errotutako konfrontazio zuzena dela. Horrela, presio ekonomikoak gerra ordezkatu beharrean haren forma espezifiko gisa dihardu.

Bestetik, inperialismo hori aliantza-sistemen bidez egituratzen da. NATO bezalako erakunde bidez, potentzia inperialisten hegemonia instituzionalizatzen dute, eta horrela, menderako estatuen lerrokatze politikoa eta integrazio ekonomiko zein militarra ziurtatu. Ukrainako gerran agerian geratu den bezala, aliantzak interes estrategikoak inposatzeko tresnak dira. Modu berean, Indo-Pazifikoko AEBren inguruan artikulatzen ari diren aliantzek Txina erasotzeko funtzio estrategikoa betetzen dute.

Azkenik, tresna horiek guztiek gerraren mehatxu iraunkorraren baitan funtzionatzen dute. Hedapen militarrek, base estrategikoek eta presentzia armatuak –Ekialdeko Europan, Hego Txinako itsasoan edo Ekialde Hurbilean– presio zuzena ezartzen dute. Indar militarra baldintza orokorra da, akordio ekonomikoak, merkataritza-harremanak eta aliantza politikoak egituratzen dituen. Mehatxu inplizitu horrek baldintzatzen ditu harreman ekonomiko eta politikoak.

Aitzitik, prozesu bakar baten adierazpen desberdinak dira: ekonomia, politika eta indar militarra modu bateratuan artikulatzen dira, eta kapitalaren mundu mailako erreprodukzioa egituratzen dute. Horrenbestez, konfrontazioa ez da soilik bitartekoen mailan egiten, baizik eta forma

historiko zehatzak hartzen ditu, une bakoitzeko baldintza materialetara egokituz. Hori dela eta, gaur egungo testuinguruan, inperialismoa ez da nagusiki konfrontazio zuzen orokorretan agertzen, baizik eta forma zatituago, zeharkakoago eta luzaroagoetan, non gatazka globala modu deszentralizatuan eta askotariko mailetan gauzatzen den.

GERRA KAPITALISTAREN FORMA GARAIKIDEAK

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, inperialismoa askotariko formen bidez eramaten da aurrera. Gaur egungo gerraren formek ez dute haren funtsa aldatzen, baizik eta adierazpen historikoa eraldatzen dute: logika bera mantentzen da, baina bitartekoak, eskalak eta artikulazio moduak berritzen dira. Inperialismoaren egungo fasean, XX. mendean bezalako potentzia handien arteko zuzeneko konfrontazio militar orokortua ez da gaur egun nagusitzen. Hala ere, horrek ez du esan nahi gerra desagertu denik; aitzitik, haren forma historikoa eraldatu da. Bloke nuklearren arteko talka zuzena kostu politiko eta material jasanezina den neurrian, konfrontazioak forma zatituagoak, zeharkakoagoak eta luzaroagoak hartzen ditu. Lehia, ordea, ez da apaltzen, egiturazko izaera bera mantentzen du.



Testuinguru horretan, delegazio gerra bihurtu da forma nagusienetako bat. Zuzenean elkar aurre egin ordez, gatazkaren bitartekari gisa dihardute tokiko aktoreek –menpeko estatuak, miliziak edo armada aliatuak–. Horrela, gatazka deszentralizatzen den arren, inperialismoaren hierarkizazioa eta zentralismoa islatzen du: lurralde periferikoak ez dira subjektu autonomoak, proiektzio-eremu bihurtzen diren espazioak baizik, eta konfrontazio globala modu lokalizatuan adierazten da.

Siriako, Yemengo edo Libiako gerren kasuan, bloke desberdinek gatazka bera elikatzen dutela agerian geratzen da, baliabide ekonomiko, militar eta logistikoak injektatuz. Ildo horretan, gatazka horiek ez dira soilik konfrontazio geopolitikoaren eszenatokiak; kapitalarentzat balioztatze-espazio berriak ere badira. David Harveyk azaltzen du prozesu horiek desjabetze bidezko metaketarekin lotuta daudela: gerraren testuinguruan, lurra, baliabide naturalak edo azpiegitura estrategikoak eskuratzeko eta berrantolatzeo aukerak zabaltzen dira, sarritan tokiko egitura ekonomiko eta sozialak desegin da. Horrela, konfrontazioak, botere-harremanak birdefinitu ez ezik, kapitalaren balioztatze baldintzak bortizki berrantolatzen ditu.


Testuinguru horretan kokatzen da segurtasun enpresa pribatuen hedapena ere. Enpresa horiek –soldatapeko indar armatu gisa jarduten dute– azpikontratatzeko mekanismo bihurtzen dute gerra bera. Horrela, potentzia inperialistek esku-hartze militarra modu malguagoan gauzatu

dezakete, kostu politikoak murriztu eta erantzukizun zuzena saihesten baitute. Gainera, maiz, armada erregularrak mantentzea baino merkeagoak dira, egitura arinagoak eta konpromiso instituzional txikiagoak baitituzte. Aldi berean, indarkeria bera balorizazio-espazio bihurtzen da, gatazkaren luzapena eta suntsiketa interes ekonomikoekin zuzenean lotzen baita.

Forma horrek ondorio espezifiko bat dakar: gerra kronifikatzea. Helburua ez da jada garaipean erabakigarri bat lortzea, aurkaria etengabe ahultzea eta posizio estrategikoak ziurtatu edo blokeatzea baizik. Horregatik, gatazkak luzatu egiten dira, baliabideen etengabeko injekzioak ebazpen azkarra eragozten duelako. Gerrak, horrela, ez du momentu puntual baten izaera; baldintza iraunkor bihurtzen da, eta eskualde osoen suntsiketa, desartikulazio soziala eta dependentsia egoera dakartza.

Gaur egungo gatazketan, gero eta ohikoagoa da konfrontazioa askotariko bitartekoen bidez gauzatzea: zibererasoak, desinformazio kanpainak, presio ekonomikoa edo operazio ezkutatuak. Tresna horiek ez dira isolatuki agertzen, baizik eta modu koordinatuan artikulatzen dira; dimentsio militarra, ekonomikoa, teknologikoa eta informatiboa uztartuz. Horrela, gudu-zelaia- ren kontzeptua bera zabaltzen da: ez da espazio militar hutsera mugatzen, baizik eta gizarte osoa hartzen duen eremu bihurtzen da, non azpiegitura kritikoak, komunikazio-sistemak edo finantza-sareak borroka-eremu bilakatzen diren.

Delegazio gerren bidez gatazka deszentralizatzen den arren, inperialismoaren hierarkizazioa eta zentralismoa islatzen da: lurralde periferikoak ez dira subjektu autonomoak, proiektzio-eremu bihurtzen diren espazioak baizik, eta konfrontazio globala modu lokalizatuan adierazten da



Gerra garaikidea ez da gatazkaren forma klasikoekiko haustura, fase berri batera egokituta dagoen forma baizik. Hain zuzen ere, konfrontazioa lausotu, luzatu eta sistemaren eguneroko funtzionamenduan integratzen duen fasea

Testuinguru horretan kokatzen dira azken urteetan hedatu diren “gerra hibridoa” edo “eremu grisa” bezalako kontzeptuak. Oro har, “gerra hibridoa” deiturikoak gatazkaren hainbat dimentsio –militarra, ekonomikoa, teknologikoa eta informatiboa– modu koordinatuan erabiltzea esan nahi du, eta konfrontazioa ez-linealagoa eta jarraituagoa bihurtzen du. Hala ere, aipatu terminoak fenomeno horiek izendatzeko erabiltzen diren arren, ez dute errealitate berririk sortzen: jada existitzen diren dinamiken formulazio ideologikoa dira. Izan ere, tresna horiek guztiak lehendik deskribatu dugun logika beraren adierazpenak dira, hau da, inperialismoa modu desberdinetan artikulatzeko moduak.

Hori dela eta, “eremu grisaren” ideia ez da ulertu behar gerra eta bakearen arteko eremu neutro gisa. Aitzitik, gatazkaren forma espezifiko da, eta bereizketa hori lausotu eta konfrontazioa etengabekoa bihurtzen du. Zibererasoek, finantza-presioek edo desinformazio kanpainak ez dute gerra ordezkatzen: gerra bera dira, beste bitarteko batzuekin egina.



Garapen teknologikoak joera horiek indartzen ditu, baina ez du haien izaera aldatzen. Droneak, doitasun handiko armek edo urrutiko esku-hartze gaitasunek indarra proiektatzeko moduak eraldatzen dituzte, eta interbentzio puntualagoak eta politikoki “kudeagarriagoak” ahalbidetu potentzia hegemonikoentzat. Hala ere, “kostu txikiago” horiek ez dira unibertsalak: zentro inperialistentzat bideragarriak diren heinean, periferian suntsiketa sozial eta material sakonagoak eragiten dituzte. Teknologiak, beraz, ez du gerra neutralizatzen; haren desoreka areagotzen du.

Ondorioz, gerra garaikidea ez da gatazkaren forma klasikoekiko haustura, fase berri batera egokituta dagoen forma baizik. Hain zuzen ere, konfrontazioa lausotu, luzatu eta sistemaren eguneroko funtzionamenduan integratzen duen fasea. Gaur egungo gatazkek, askotariko forma hartu arren, logika bera jarraitzen dute. Hala ere, forma horiek –bereziki delegazio gerrak eta konfrontazio hibridoak– ez dira neutroak, ezta egonkorrak ere: tentsioak kanporatu eta kudeatzeko balio duten heinean, aldi berean, kontraesan berriak sortu eta metatzen dituzte, frikzio-iturri bihurtzen baitira. Horrenbestez, gaur egungo gerraren formek haren dinamika konplexuago eta ezegonkorrago bihurtzen dute, eta hurrengo faseetan agerikoago bihurtuko diren talken baldintzak prestatzen dituzte.

DELEGAZIO BIDEZKO GERREN MUGAK ETA GATAZKAREN BIRKONFIGURAZIOA

Gerra delegazioaren bitartez garatzea ez da inperialismoaren kontraesanen irtenbide egonkorra, kontraesan horien kudeaketa forma espezifiko eta mugatua baizik. Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, kapitalarentzat gerra ez da salbuespena, baizik eta metaketaren baldintzak berrantolatzeko tresna bat; eta inperialistek, konfrontazio zuzena saihesteko, lehia hori sarritan zeharkako formetan kanalizatzen dute. Hala ere, forma horrek berak bere baitan mugak ditu. Delegazio gerrek, konfrontazioa “kanporatzen” duten heinean, ezin dituzte beren jatorria diren kontraesanak desagerrarazi: aitzitik, lekualdatu, pilatu eta, azkenean, areagotu egiten dituzte.

Gonzalo Fiorek dioenez, gatazkaren forma horiek ezin dute sistemaren tentsioa baretu; kontrara, hurrengo talka zikloak prestatzen dituzte. Delegazio gerrek kapital metaketarako aukerak irekitzen dituzte –suntsiketa, berreraikuntza, baliabideen kontrola–, baina aldi berean frikzioak sortu. Ez dira, beraz, soilik errentagarriak diren eszenatokiak; kostuak, ziurgabetasuna eta kontrol galerak ere sortzen dira.

Ikuspegi horretan sakonduz, frikzio horiek hainbat mailatan agertzen dira. Lehenik, maila ekonomikoan, gatazka luzeek baliabide materialen xahuketa dakarte, eta horrenbestez, hornidura-kateak eten eta merkatuen egonkortasuna kolokan jartzen da. Bigarrenik, maila politikoan, delegazio bidez jarduteak aliatuen menpekotasuna eskatzen du, baina mendekotasun hori inoiz ez da erabatekoa. Tokiko interes propioak garatzen dituzte, eta horiek ez datoz beti bat potentzia babesleen estrategiekin. Hirugarrenik, maila militarrean: gatazkak luzatu ahala, eskalada kontrolatzeko gaitasuna ahuldu egiten da, eta aurreikusi gabeko dinamikek protagonismoa hartzen dute.

Horrela, delegazio gerren kontraesana azaleratzen da. Alde batetik, gerra mota hori beharrezkoa da potentzia handientzat, konfrontazio zuzena saihesteko. Bestetik, forma horrek berak baldintza berriak sortzen ditu, kontrolatzeko gero eta zailagoak direnak eta tentsioa pilatzen dutenak. Ez da, beraz, egonkortasun mekanismo bat, ezegonkortasunaren kudeatzeko era bat baizik.

Suntsiketa materialak berreraikuntza-prozesuak irekitzen ditu, eta finantza-kapitalak, kredituaren eta zor publikoaren bidez, posizio na-

gusiak eskuratzen ditu. Aldi berean, baliabide estrategikoen kontrola berrantolatzeko, merkatu berriak irekitzeko eta dependentzia-harremanak sakontzeko baldintzak sortzen dituzte gatazka luzatuek. Horrela, gerra forma horiek bereziki funtzionalak izan daitezke kapital frakzio jakinentzat.

Horrez gain, industria militarrekin lotutako kapital frakzioek ere etekin zuzenak lortzen dituzte, armamentuen ekoizpena eta hornidura etengabea eskatzen duten gatazka luzeen bidez. Bada, gerra delegazio bidez garatzen denean, ez da soilik konfrontazio politiko eta militarra kudeatzen; ekoizpen, finantzaketa eta berreraikuntza ziklo bat aktibatzen da, kapital jakin batzuentzat errentagarritasun-iturri bihurtzen dena.

Hala ere, onura horiek ez dira orokorrak ezta egonkorrak ere. Ez dira, beraz, errentagarriak soilik diren eszenatokiak; kostuak, ziurgabetasuna eta kontrol galerak ere sortzen dituzte. Gatazkak luzatu ahala, baliabideen xahuketa, aliatuen autonomizazioa eta eskalada kontrolatzeko zailtasunak areagotu egiten dira, eta blokeentzat beraientzat frikzio-iturri bihurtu.

Delegazio gerren mugak agerian geratzen dira tentsio metatu horiek jauzi kualitatiboak eragiten dituztenean. Gatazka periferiko batean sortutako talkek erraz gaindi dezakete jatorrizko esparru lokala: azpiegitura estrategikoen aurkako erasoek, hornidura energetikoaren etenek edo potentzia handien interes zuzenei eragiten dieten gertakariak eskalada dinamika azkartzen dute. Une horretan, zeharkako konfrontazioaren markoa estutu egiten da, eta potentziek gero eta modu zuzenagoan esku hartzeko joera hartzen dute. Joera horrek ez du automatikoki eskalada zuzena eragiten, baina baldintza jakin batzuetan, bereziki tentsioa pilatzen denean, jauzi kualitatiboak eragin ditzake.

Ukrainako gerraren kasuak argi erakusten du dinamika hori. Urteetan zehar, delegazio bidez kudeatu zen gatazka. Hala ere, tentsio ekonomiko, militar eta politikoen metaketak marko hori gainditu zuen. Donbassen urte luzez hildakoak eragin ondoren, AEB eta EBren interbentzio zuzena ez zen haustura bat izan. Jokoan zeuden interes estrategikoak bermatzeko delegazio gerra nahikoa ez zenean, beste baldintza batzuetan eman zitzaion jarraipena aurreko faseari.



Antzeko joerak ikus daitezke beste agertoki batzuetan ere, non zeharkako mekanismoak gero eta gehiago uztartzen diren esku-hartze zuzenagoekin. Horrek erakusten du delegaziozko gerra ez dela azken fase egonkor bat, trantsiziozko forma bat baizik, eta azken horrek gatazkaren intentsitatea eta eskala handitzeko joera du.

Ondorioz, inperialismo garaikidean gerra ez da soilik askotariko formatan agertzen den fenomeno; forma horien arteko tentsioak dira sistemaren dinamika bultzatzen dutenak. Delegazio gerrek, errentagarritasun aukerak sortzen dituzten heinean, aldi berean blokeen arteko konfrontazioa sakontzen dute. Horregatik, ez dira egonkortasun mekanismotzat hartu behar, kontraesanak metatzen dituzten dispositibotzat baizik, eta horien bidez sortzen dira inperialismoa fase berrietara igarotzeko baldintzak. Gatazkaren forma horiek, sistemaren tentsioa lekualdatu nahian, hurrengo talka zikloak prestatzen dituzte. ●

Gatazka periferiko batean sortutako talkek erraz gaindi dezakete jatorrizko esparru lokala. Une horretan, zeharkako konfrontazioaren markoa estutu egiten da, eta potentziek gero eta modu zuzenagoan esku hartzeko joera hartzen dute

GERRA

POSIZIO ETA
TEORIA SOZIALISTA,
XIX. MENDETIK
XX. MENDERA
IGAROTZEAN

Testua — **Aimar Nuñez**



Aleksandr Deineka. "Apartero pilotuaren erorketa". (1943)

Gerraren presentzia gai ziklikoa izan da XX. mendean, eta badirudi, XXI. mendean, berriro ere, hala izaten ari dela. Horren atzean dauden arrazoiak politika diplomatikoetan edo ustekabeko gertaeretan bilatzea historia unean uneko erabakien kateatze gisa ulertzearen parekoa da, erabaki horiek soilik beren eramaileen borondatearen mende baleude bezala. Horregatik, marxisten betebeharra da gerrari buruzko literatura sozialista aztertzea, benetan ulertu ahal izateko haren egiturazko kausak, ondorioak eta, batez ere, komunistok horren aurrean ditugun zereginak. Hori bera izango da artikulu honen muina, XIX. mendearen bigarren erdialdetik III. Internazionalaren eraketa arte. Gaiaren muga-tze mailaz jabetuta, uste dut jorratu beharreko aldiak inperialismoari eta gerrari buruzko eztabaida oso garrantzitsu eta egokiak biltzen dituela, gaur egun aplikatu daitezkeen ondorioak atera ahal izateko.

GERRAREN IKUSKERA MARXISTAREN JATORRIA

Marx eta Engelsen garaira jotzen badugu, gerra materialismo historikoaren bidez aztertu beharreko fenomenotzat jotzen zuten pentsalari haiek. Materialismo historikoak klase menderatzailearen politikaren jarraipen gisa ulertzen zuen gerra, beste bitarteko batzuk erabilita, hau da, indarkeria erabilita, Clausewitzek azpimarratzen zuen bezala. Estatua klase menderatzailearen interesak ordezkatzan dituen erakunde ez-neutro gisa ulertuta, nazioen arteko gerrak, baita gerra zibilak ere, klase menderatzaileen interesen defentsa armatua baizik ez dira. Hala ere, ez zuten modu bakezalean jokatu haren aurka, batzuetan gerra horiek gizarte burges aurrerakoi berri baten sorrera ekar zezaketelako, non proletariotzaren garapena aurrerapen historikoa izan zitekeen. Marxek *Kapitala* lanean esan zuen bezala, “indarkeria da gizarte berri bat erraiaetan daraman gizarte zahar ororen abiapuntua”. Horregatik bereizi zituzten gerra aurrerakoiak eta erreakzionarioak, aurrenekoak legitimatu eta besteak arbuia-tuz.

Marxek eta Engelsek aztertu zituzten bi gatazketako bat Amerikako gerra zibila izan zen. Gatazka horrek bi ekoizpen modu kontrajarriren arteko aurkaritza saihestezina irudikatu zuen: soldatapeko lanaren eta esklabo lanaren artekoa. Bi pentsalariak garbiki agertu ziren Erresuma Batuak bertan parte hartzeko zuen asmoaren aurka, eta haien aktibismoa iparraldearen defentsan oinarritu zen, iparraldea hegoaldeko esklaboen askapenaren eta bere burua emantzipatzeko gai zen klase proletario zabal baten sorreraren adierazle baitzen.

Frantziaren eta Prusiaren arteko gerraren aurrean izan zuten jarrera pragmatismo iraultzaile beraren beste adibide bat izan zen. Hasierako jarrerak gerra legitimatu zuen Napoleon III.ari aurre egiteko, Alemaniaren bateratzeari eta, horrekin batera, haren nazio eraketari eta garapen kapitalistari oztopo egiten baitzion. Haren porrota aurrerapen historikoa zatekeen europar feudalismoarekiko, jakinik bereziki errusiar tsarismoak sostengatzen zuela feudalismo hori. Hala ere, posizioa erabat aldatu zen Napoleonen errenditzearekin eta Errepublikaren aldarrikapenarekin, gerrak izaera konkistatzailea hartu baitzuen, bereziki Alsazia eta Lorrenarekiko, eta hori gogor kritikatu zuten Marxek, Engelsek eta Alemaniako Langile Alderdi Sozialdemokratak. Gerraren norabidea ikusita, frantziar eta alemaniar langileei dei egin zieten, gatazkaren aurka batu zitezen, gerra horrek etorkizuneko liskar odoltsuagoetarako bidea irekitzen zuela ohartaraziz.

Hain zuzen ere, gerrari buruzko diskurtso aldaketa horretan suma daitezke kapitalismoaren garapen monopolistari buruzko lehen oharrak, gerora Leninek eta Hilferdingek zehaztasunez definituko zituztenak. Marxek termino horietan hitz egin ez bazuen ere, interes ekonomikoengatik herrialdeak konkistatzeko halako konpultsioa inperialismorik sakonenaren garaian gertatuko zenaren aurrekaria izan zen.

Frantziako esperientziak, eta ondotik, Parisko Komuna ezarri izanak, ondoren gerrarekiko teoriaren garapen leninistarako erabakigarria izango zen behaketara eraman zuten Marx. Argi geratu zen nazioen arteko gerra klase menderatzaileen

***Estatua klase menderatzailearen interesak
ordezkatzan dituen erakunde ez-neutro
gisa ulertuta, nazioen arteko gerrak, baita
gerra zibilak ere, klase menderatzaileen
interesaren defentsa armatua baizik ez dira***

Fiodor Usipenko. "Gaueko operazioa". (1958)



*Argi geratu zen nazioen
arteko gerra klase
menderatzaileen
tresna zela, gerra zibila
atzeratzeko, klaseen
arteko gatazka soziala
piztu bezain azkar
abertzaletasuna alde
batera uzten zuten eta*

tresna zela, gerra zibila atzeratzeko, klaseen arteko gatazka soziala piztu bezain azkar abertzaletasuna alde batera uzten zuten eta. Azken finean, ezpataren, lurraren eta kapitalaren jaunek bat egiten zuten langileriaren aurka, hark ordena kapitalista mehatxatuz gero.

Gerra Europara itzuli zen testuinguru horretan, Langileen Nazioarteko Elkartean (LNE) ibilbide orri bat marrazten hasi ziren. Haren hasierako manifestuaren puntu gakoetako bat langile klasearen prestakuntza teorikoa bultzatzea izan zen gobernuen politikan, diplomaziari aurre egiteko, eta are gehiago tsarren autokraziarekin harremanak estutu behar zituztenentzako. Gainera, LNEko sekzioei eskatu zitzaien langileak bultzatzeko etorkizuneko langileen odolusteen atarikoak izango ziren gerrak saihestera.

Ikus dezakegunez, beren planteamenduetan pragmatikoak izan arren, Marxek eta Engelsek proletariotzaren klase garapena bilatzea lehene- tsi zuten beti. Oportunistek gertaera horiek guz- tiak erabili izan dituzte gerra inperialista anakro- nikoki justifikatzeko, adibidez, Marxek tsarren gobernuari etengabe egin zion kritika baliatu zuten guztiz inperialista zen gerra batean de- fentsismo alemaniarra justifikatzeko. Hala ere, Leninek gogor borrokatu zuen postura hori XX. mendearen hasieran.

**BIGARREN INTERNAZIONALAREN
HASTAPENAK: GERRAREN AURKAKO
LEHENENGO POSIZIONAMENDUAK**


1887an idatzitako testu batean, Engelsek bi- kain iragarri zuen Lehen Mundu Gerra izango zena. Zehaztasun handiz aurreikusi zuen zortzi- hamar milioi langilek galduko zutela bizia Euro- pako estatuen gorputz militar gero eta handia- goek iragartzen zuten gerra baten ondorioz. Hala ere, ez zuen sistema egonkor mantenduko zuen historiaren norabide saihetsezin gisa azaldu: ha- ren ondoren piztuko ziren prozesu iraultzaileak ere auresan zituen. Aipatu behar da aurreikus- pen hori oso zehatza dela jatorrizko aipuaren ebazpen guztietan, eta agerian uzten digu une hartako jarrera sozialista, sistema kapitalistaren kolapsoa oso gertukotzat (agian gertukoegitza) jotzen zuena.

Baina Marxek eta Engelsek gerrari buruz zu- ten jarrerarekin batera, XIX. mendearen amaie- ran nazioarteko mugimendu sozialistaren jarre- ra ortodoxoa garatzen joan zen, II. Internazional Sozialistaren kongresu eta konferentzietako adierazpen askotan antzeman daitekeena. Atal honetan, egokia iruditzen zait zenbait kongresu- ren ekarpenak aipatzea, gerraren aurrean jarre- ra sozialistaren zutabe izango zirenak marrazten hasi baitziren, 1914an traizioa gertatu zen arte.

1891ko bigarren kongresuan, Bruselan, Inter- nazional Sozialistak sistema kapitalistaren pean gizakiak gizakia esplotatzea identifikatu zuen Eu- ropan hainbeste hazten ari zen militarismoaren jatorrizko kausa gisa. Ondorioz, deslegitimatu egin zuten gaizkiaren iturri ekonomikoak erre- produzitzen zituen sistemarekin amaitzeko as- morik ez zuen edozein bake asmo. Oinarri hori Internazionalak gerrari buruz egindako lehen eskakizunetako batean gopuztu zen, 1893ko Zu- richeko hirugarren kongresuan, non langileen alderdiei kreditu militarren aurka bozkatzeko eskatu zitzaien. Esan beharra dago, ordea, II. In- ternazionalak gehienbat itsasargi ideologiko be- zala funtzionatzen zuela, eta ez hainbeste aginte hierarkiko modura, eta horrek mugatu egin zuen haren erabakien eraginkortasuna.

Posizioaren bilakaera pixka bat aldatu zen Londreseko 1896ko laugarren kongresuan; ber- tan, aurretiko eskakizun praktikoak maxima bihurtu ziren, zeinek erakundearen norabi- de diskurtsiboa adierazten zuten, erakundea- ren norabide erreala baino gehiago. Kasu har- tan, armada iraunkorrak ezabatzea eskatu zen,

*1891ko bigarren kongresuan,
Bruselan, Internazional Sozialistak
sistema kapitalistaren pean gizakiak
gizakia esplotatzea identifikatu
zuen Europan hainbeste hazten
ari zen militarismoaren jatorrizko
kausa gisa. Ondorioz, deslegitimatu
egin zuten gaizkiaren iturri
ekonomikoak erreproduzitzen
zituen sistemarekin amaitzeko
asmorik ez zuen edozein bake asmo*



Yevsey Moiseyenko. "Garaipena". (1972)

horien partez milizia herritarrek sortzeko, baita nazioarteko arbitraje auzitegiak ezartzea ere. Era berean, exijentzia horiek erakusten dute epe laburrean sistema kapitalistaren erorketa gertatuko zela uste zutela. Azkenik, Londresen kolonialismoaren aurkako jarrera irmoa hartu izana ere aipatu behar da. Hala ere, printzipio horrek degenerazio eta haustura teoriko sakona jasan zuen, nagusiki Bernsteinek artikulatutako kritika errebisionistak eraginda.

MENDE BERRIAREN HASIERA ETA IMPERIALISMOAREN KARAKTERIZAZIOA

XX. mendearen hasieran ireki zen garai berria, alderdi ideologikoan, kritika errebisionista agertu izanak markatu zuen. Alderdi materialen, berriz, sistema inperialaren kontraesan gero eta handiagoen garapenak ezaugarritu zuen, zentzu guztietan beren puntu gorenera iritsi zirenak. Garai horretan, kapitalaren garapen monopolistak, kapital finantzarioaren integrazio azkarrak eta nazioarteko sisteman gastu militar neurrigabeek eraldatu egin zuten gerraren karakterizazioa. Ondorioz, gerrak azkar galdu zuen XIX. mendeko gerra aurrerakoiaren kutsua; izan ere, beren eragin ekonomikoa handitzeko azken ondorioetara iristeko prest zeuden potentzia inperialista askoren arteko harrapari talka moduko bat bihurtu zen.

Paradigma aldaketa sakon horrek oro har gerrari buruzko azterketa eguneratu behar izatea ekarri zuen, eta, zehazki, azpian zuen inperialismoari buruzko azterketa eguneratu behar izatea. Belizismoa inperialismoarekin nahastu behar ez den arren, bien arteko identifikazio tautologikoak jarrera garaikide batzuk inperialistatzat ezin katalogatzera eramango gintuzkelako, guztiz beharrezkoa izan zen inperialismoari buruzko teoria bat garatzea. Hura gabe, ezin izango zitekeen gerra kapitalismo monopolistaren garapen dialektikoaren beharrezko mailatzat ulertu. Hala ere, formulazio hori ez zen hain erraza izan, Leninek iraganeko ikuspegi dogmatikoei zein oportunismo sozialistako teoria utopikoei aurre egin izan behar baitzien.

Lenin metodologikoki Marxek eta Engelsek onartutako abiapuntutik abiatu zen: Carl Von Clausewitzek formulatu zuen bezala, gerra politikaren jarraipena da, beste bitarteko batzuk erabilita. Horrela, gerra inperialistak nazioetako klase menderatzaileen interesak gauzatzen

Leninen ustez, inperialismoaren zentzua, orduan, mundua eta, batez ere, lan indarra potentzia inperialisten artean banatzean zetzan. Kontua ez zen agintzea soilik, baizik eta lan indar koloniala ustiatzea, hortik gainbalio kopuru izugarriak atera ahal izateko

zituela defendatu zuen, bai eta 1789. eta 1871. urteen artean izandako gerra aurrerakoietatik oso urrun zegoela ere. Gerra aurrerakoi horiek feudalismoaren sunsipena eta nazioen askapena irudikatzen zituzten bitartean, oraingoek, kapitalari munduan zehar hedatzeko beharra baizik ez zutela ordezkatzten. Kapitalismoak, lehenago ordena feudalaren aurkako borrokan eta proletariotzaren sorreraren paper aurrerakoa izan zuenak, ekoizpen modu erreakzionario bihurtu eta bere indar produktiboak muga jakin batzuetaraino garatzean, bi bideren artean hautatu beharra ekartzen zuen: hamarkadetako, edo are, mendeetako zapalkuntza pairatzea, garai bateko sistema iraultzaile bat artifiziarki mantentzeagatik, ala iraultza sozialistaren bidez berau gainditzea.

Leninen inperialismoari buruzko teoria kapitalismoaren garapenaren behaketa enpirikoan oinarritzen zen. Metaketaren logikak eta balioaren legeak kapital finantzarioan oinarritutako monopolioak eta oligarkiak sortzea ekarri zuen. Formazio ekonomiko horiek, gero eta eremu gehiago hartzen zituztenak, jada ezin ziren salgaien esportazio hutsarekin erreproduzitu, kapitala esportatzeari ekin behar zioten ekoizpeneko harreman sozial gisa. Premia horrek nazioarteko erakunde kapitalista monopolistak sortzea eragin zuen, eta mundua kontrol politiko eta militarren bidez banatzea ekarri zuen, ustiapen ekonomikoari eusteko beharrezkoa baitzen.

Leninen ustez, inperialismoaren zentzua, orduan, mundua eta, batez ere, lan indarra potentzia inperialisten artean banatzean zetzan. Kontua ez zen agintzea soilik, baizik eta lan indar koloniala ustiatzea, hortik gainbalio kopuru izugarriak atera ahal izateko.

Urte haietan inperialismoari buruz sortutako literatura zabala gorabehera, interesgarria da teoria zehatz bat aipatzea, egilearen pisuagatik eta bere ondorengo jarrera politikoa legitimatu ahal izateko bete zuen funtzio argiagatik. Kautskyren ultrainperialismoaren teoriari buruz ari gara. Teoria horren arabera, kapital finantzarioen elkarketak munduko kapitala bateratzera joko luke, ekoizpena modu arrazional eta iraunkorrean antolatuz. Ondorioz, armagintza-lasterketa orok bere eraginkortasuna galduko luke, nazioarteko kartel handi hipotetiko bat garatzeko oztopo bat besterik ez bailitzateke izango. Ordea, logika horrek ez zuen kontuan hartzen herrialdeen eta ekoizpen adarren hazkunde desorekatua; izan ere, desoreka horrek armen bidez defendatu litekeen etengabeko botere harremana eragiten du. Horregatik, Leninek oportunistak politikotzat jo zuen Kautsky, eta leporatu zion haren asmo bakarra epe laburrean taktika iraultzaileari uko egitea zela.

Gerra inperialismo garatuaren ezinbesteko une gisa deskribatuz gero, ez zeukan zentzurik gerra “defentsibo” edo “aurrerakoiak” hitz egiteak, ezta “aberriaren defentsaz” hitz egiteak ere, nahiz eta hamarkada batzuk lehenago zentzua izan. Aldarrikapen horiek, anakronismo historiko batetik harago, klase popularren oniritzia irabaztera bideratutako arma ideologiko bat ziren, eta hasiera batean burgesia nazionalen argudio nagusia izan ziren, baita gerora II. Internazionalako sozialistena ere, gerraren hasieran.

Funtsezkoa da azpimarratzea 1912ko Basileako Kongresuak aho batez bakea defendatu zuela, eta ez zituela inoiz defentsa-gerra edo aberriaren defentsa hitzak erabili. Alderantziz, etekinen aldeko gerra bat zela azpimarratzen zuen, bai eta haien artean tiroka aritzea langileen benetako krimena izango zela ere. Horren ordezt, kapitalismoaren erorketa azkartzeko antolatzeke premisa errepikatzen zen

Hala ere, sakontasun teoriko hori nazioarteko kongresuetako ebazpenetan agertu ziren gerrarekiko jarrera praktikoen ondoren etorri zen. Jada 1900eko Parisko V. Kongresuan, Rosa Luxemburgek ebazpen bat aurkeztu zuen militarismoaren aurka egiteko eta sistematikoki gerra kredituen aurka bozkatzeko betebeharra adieraziz. Hala ere, funtsezko jauzi kualitatiboa Stuttgarter VII. Kongresuan eman zen, 1907an; izan ere, bertan, nazioarteko tentsioa lasaitzea lortu zuten lan sindikalaren zenbait adibide nabarmentzeaz gain, ordura arteko ekarpenik garrantzitsuenetako bat egin zen, aho batez onartu zena. Leninek, Rosa Luxemburgek eta Yuli Martovek aldarrikatu zuten, bakezaleen ahaleginak gorabehera, gerra lehertuz gero, langileen betebeharrak saihetsezina zela berehala amai zedin esku hartzea, krisi ekonomiko eta politiko sakona aprobeztatzuz, masak astintzeko eta menperakuntza kapitalistaren behin betiko erorketa azkartzeko.

Jarrera hori Kopenhagen garatu eta berretsi zen 1910ean, eta, batez ere, 1912an, Balkanetako tentsio handiaren ondorioz deitu zen Basileako ezohiko kongresuan. Erabaki profetikoa horrek ezin hobeki deskribatu zuen taula inperialista, eta Europako potentzia handien esku hartzeak ekarriko lukeen efektu katalizatzaileaz ohartarazi zuen. Funtsezkoa da azpimarratzea kongresu horrek aho batez bakea defendatu zuela, eta ez zituela inoiz defentsa-gerra edo aberriaren defentsa hitzak erabili. Alderantziz, etekinen aldeko gerra bat zela azpimarratzen zuen, bai eta haien artean tiroka aritzea langileen benetako krimena izango zela ere. Horren ordezt, kapitalismoaren erorketa azkartzeko antolatzeke premisa errepikatzen zen.



Nikolay Prissekin. "Garai latzak". (1984)

BIGARREN INTERNAZIONALAREN PORROTA ETA HIRUGARRENAREN SORRERA

Gerraren aurkako jarrera guztiak ahaztuta geratu ziren 1914an. Alderdi sozialdemokrata gehienek (boltxebikea, serbiarra eta gutxiengo eragile batzuk izan ezik), alemanetik hasita, kreditu militarren alde bozkatu zuten eta, horrela, diskurtso sozialistari traizio handiena egin zitzaion, baita langile klaseari ere. Milioika langile hilko ziren inoiz ikusi den gerrarik odoltsuenean, orduan Iraultzaren ustezko alderdien laguntzarekin, esan gabe doa, jada errebisionismoak eta oportunismoak oso kutsatuta zeudenak. Horrela, beren burgesia nazionalekin bat egiten zuten, “aberriaren defentsan”. Hala ere, hori ez zen azalpenik

gabe gerta zitekeen biraketa bat, eta azalpen hori kolonietan bilatu behar da. Horietan egindako ustiapen erraldoiak gainbalio kopuru izugarriak xurgatzea ahalbidetzen zuen, langile aristokraziak apurrez elikatzeke balio zutenak. Hain justu, langile aristokrazia horiek izan ziren diskurtso-bira horren ezkutu. Leninek sektore hori “klase kapitalistako langileen ordezkari” gisa izendatu zuen.

Nazioarteko panorama atsekabegarri horren aurrean, non Kautskyren mailako figurek ere kredituen alde bozkatu zuten, marxismoaren hegal iraultzaileak, Lenin eta boltxebikeak buru zirela, talde minoritarioekin batera, egoera iraultzeko

Ulertuz gero gerra politikaren jarraipena zela, baina beste bide batzuetatik, ulertu beharko zen, halaber, langile klasearentzako tresna ere bazela, unea iritsitakoan erabili beharrekoa

lanari ekin zion, errealitate material eta ideologiko berriari irtenbide zehatzak bilatuz. Porrota askoz lehenago hasi zen, oportunistoa sendotu eta alderdi sozialistak sistema kapitalistan integratu zirenean. Abuztu hura edalontziak gainezka egitea eragin zuen ur tanta baizik ez zen izan.

Lehen urrats politikoa Zimmerwald-eko Konferentzian eman zen, 1915eko irailean. Topaketa horren garrantzia gizarte iraultzaren ikuspegiak nazio bloke batek beste bat garaitzearen mende jartzen zuen estrategia sozialista baztertzean zeztan. Hala ere, akats bat litzateke Zimmerwald jotzea tesi homogeneoak zituen haustura mugimendu baten sorlekutzat, errealitatean izan zenetik oso urrun legokelako.

Hitzaldia prestatzeko, Leninek, Zinovievekin batera, *Sozialismoa eta Gerra* idatzi zuen, gerra inperialistaren aurkako ideiarik garrantzitsuenak azaltzeko. Lehenik eta behin, marxistak ez direla bakezaleak adierazi zuen. Ulertuz gero gerra politikaren jarraipena zela, baina beste bide batzuetatik, ulertu beharko zen, halaber, langile klasearentzako tresna ere bazela, unea iritsitakoan erabili beharrekoa. Horrela, Leninek adierazten zuen iraultzaileak ez daudela gerra inperialistaren alde, baina bai burgesiaren eta proletariotzaren arteko gerren alde, baita nazio askapenerako gerren alde (serbiarren kasua ulertzen zen bezala, arrazoi inperialisten mende egon arren) edota inperialismoaren aurkako gerren alde ere, oro har. Horrela, aurreko kongresuetan orain arte azaldutako guztian oinarritutako aurretiko tesi batzuk erein ziren.

Zimmerwaldeko Konferentziak 11 herrialde-tako 38 sozialista bildu zituen, eta hiru taldetan banatu zen. Guztiak, hori bai, garai horretan nagusi zen jarrera belizistaren aurkakoak ziren. Eskuinak, gehiengo zabalak, pentsamendu bakezale eta antibelikoa zuen, baina sozial-chauvinistekiko zatiketaren aurkakoa. Parte hartzeko *sine qua non* baldintzetako bat, hain zuzen ere, hori zen, eta hainbat alditan tentsio puntuetara eramán zuen. Ezkerrak, aldiz, gutxiengoa eta, besteak beste, Leninek eta boltxebikeek ordezkaturá, gerra babes-tu zuten sozialisten salaketa proposatzen zuen. Gainera, Internazionale berri bat sortzearen aldekoak ziren. Kienthalen lantzen joan zen gai hori. Erdiguneko alderdia erabakigarria izan zen azken orekan, eta batzuetan eskuinera makurtu zen, ezkerraren posizio iraultzailea aurrerapen partzialetara mugatuz. Epe luzera, Zimmerwaldeko ezker hori II. Internazionalearen kontrapisua izan zen, boltxebikeak, espartakistak, tribunistak eta beste talde minoritario batzuk integratuz.

Egia esan, Zimmerwalden azaldutako posizioak teorikoki eta praktikoki bateraezinak ziren. Alde batek nazioarteko harremanak berrezartzea proposatzen zuen, mugimendu sozialistari gatazka inperialistako bitartekaritzan parte hartu ahal izateko pisua emate aldera, eta besteak, berriz, iraganeko betebehar gisa ikusten zuen hori, jada zentzugabea zen helburua. Bigarren alde horrentzat, egin beharreko lana “gerra inperialista gerra zibil iraultzaile bihurtzeko” betebehar ospetsua zen. Horixe izan zen Leninek hainbeste defendatu zuen premisa; hain zuzen ere, berak eta Karl Radekek azaldutako zirriborroaren zutabe nagusia izan zen. Hala ere, aipatutakoarekin suma daitekeenez, azken ebazpena anbigua izan zen, eta ez oso erabakigarria. Besteak beste, diputatu sozialistek gerra-kredituen aurka bozkatzeko eskakizuna blokeatu zen, hala eginez gero ordezkari alemaniarrek taldea utziko zutela mehatxatu baitzuten.

Kienthal, berriz, 1916ko apirilean egin zen eta Zimmerwalden erabakitakoarekiko pixka bat ezkerrerragoko jarrera bat nagusitu zen, gerraren ondorioz langile klasearen baldintzek okerrera egin zutelako. 43 ordezkarik hartu zuten parte, eta ezkerrak hamabi ordezkariren babesa izan zuen (Zimmerwalden zortzi izan ziren).

ERRUSIAKO IRAULTZA ETA ALDAKETA ERRETORIKO TAKTIKOA

Lenin Otsaileko Iraultza egin ondoren itzuli zen Suitzako erbestetik, 1917ko apirilaren 3an. Hilabete horretan bertan, *Apirileko Tesiak* idatzi zituen, eta, horietan, beste gauza askoren artean, gerraren gaia jorratu zuen. Behin-behineko gobernuari buruz hitz egiterakoan, erabat uko egin zion hura babesteari, gobernuak gerra inperialistan jarraitu nahi zuelako, Europako alderdien antzera. Hala ere, behin-behineko gobernuá ez zen tesietan kritikatu zuen bakarra izan, horietan Zimmerwaldeko Internazionalearen porrotaz ere aritu baitzen. Hasieratik sozial-chauvinismoarekin hautsi ez zuenez, eta gehiengoan elementu kautskytarrez osatuta zegoenez, Zimmerwald eta Kienthalen taldeak Internazionale Sozialistari lotuta jarraitzen zuen. Faktore horien aurrean, zereginak gero eta argiagoak ziren: konpromiso antibelizista eskasa kritikatzéa eta laster antolatu beharreko Hirugarren Internazionale baterako deia egitea.

Errusiara itzultzeak herrialde bakoitzean egin beharrekoari buruzko termino taktikoak aldatzéa ere ekarri zituen. Boltxebikeak langile eta nekazariekin harremanetan jarri ziren, eta gerrari buruzko iritziek Alderdiaren erretorika birformulatzea ekarri zuten. Aurreko urteetako aldarrikapenek, gobernu nazionalaren porrota gaitz txikiagoa zelakoan, gerra zibilaren garapenerako urrats hobetsi gisa definitu zuten; gerora, ordeá, Errusiako egoerara moldatu behar izan ziren aldarrikapenok.

Puntu honetara iritsita, ezinbestekoa da denboran atzera egitea eta “derrotismo iraultzaile” terminoaren garapen taktikoaz hitz egitea, baita gerra inperialista gerra zibil iraultzaile bihurtzeaz ere. 1904ko Errusiaren eta Japoniaren arteko gerran erabiltzen hasi zen derrotismo iraultzailea funtsezko elementua izango zen 1914tik aurrera Leninen narratiba estrategikoan, esanahia oso aldakorra izan zuen arren. Hala ere, “gerran gobernu nazional bakoitzaren porrota sustatzearen” aurrean, “gerra inperialista gerra zibil iraultzaile bihurtzearen” premisa nagusitu zen. Ez zeukan zentzurik gobernu bakoitzaren porrota espero izateak, horrek ekoizpen kapitalistaren modua gainditzeko urratsa emango lukeen iraultza nazional bat katalizatzeko balio ez bazuen.

Hitz gutxitan, derrotismo iraultzailea ez zeztan etsaiaren garaipena desiratzean, baizik eta herrialdean asaldura iraultzailea sustatzean, gatazka belikoan horrek izan zitzakeen ondorioak ondorio. Gobernu sozialistek herrialde barneko bakea bilatzen zuten bitartean beren eraginkortasun belikoa handitzeko, derrotismo iraultzaileak asaldura iraultzailea planteatzen zuen, kanpoko ondorioei erreparatu gabe.

Hala ere, ukaezina da Leninek kontzeptu hori garatu eta gerrak sortutako baldintza material tamagarrietara egokitu zuela. 1904-1905ean, Marxek erabiltzen zuen antzeko eran erabili zuen kontzeptu hori, neurri batean Port Arthur erortzea ospatuz, tsarren autokrazia erorrarazteko une erabakigarria izango zela argudiatuz. 1914an, bideá chauvinismoaren aurkako borroka eta Errusiako gobernuaren erorketa eta ondoren gobernu inperialista guztiena sustatzea zela ikusten zuten. Hala ere, ikuspegi hori koadroei eta abangoardia sozialistari zuzentzen zitzaien. Beharrezkoa zen printzipioak finkatzea eta borroka ideologikoan lerroak ixtea. Nahiz eta gobernu nazionalen porrotaren zain egotea masen artean iritzi popularrena ez izan, zeregin nagusia Bigarren Internazionalearen haustura sustatzea eta benetan nazioarteko sistema kapitalista gainditzéa proposatuko lukeen alternatiba sortzea zen.

Tsarismoa erori zen arte, Leninek derrotismo iraultzailea erabili zuen autokraziaren aurkako tesi gisa. Iraultzaileentzat, gaitzik txikiena

Derrotismo iraultzailea ez zetzan etsaiaren garaipena desiratzean, baizik eta herrialdean asaldura iraultzailea sustatzean, gatazka belikoan horrek izan zitzakeen ondorioak ondorio

tsarismoaren erorketa zen. Baina horrek ez zion alemaniarren jarrera inperialistari zilegitasunik ematen, alemaniarren zeregina ez baitzen soilik tsarismoarekin amaitzea, baizik eta baita beren klase menderatzailearen aurka antolatzea ere.

Iraultzaren urtera itzuliz, 1917ko otsailean aldatuko zen dena, erretorika derrotista hori erabiltzeari utzi baitzioten, Errusiako egoaren aldaketaren ondorioz. Hala ere, derrotismo iraultzailetik urruntzeak ez zuen defentsismora hurbiltzea ekarri. Izan ere, *Suitzako Langileen-tzako Agur Gutunean*, Leninek azpimarratzen du

behin-behineko gobernuak gerra inperialistarekin jarraitu nahiko balu, haiek izango liratekeela beren aurkari erabakigarriak, eta “aberriaren defentsaren” aurka agertuko liratekeela, benetan gertatu zen bezala. Diskurtsiboki derrotismoarekiko urruntzea ez zen tesiaren gainditze teorikoa izan; egindako iraultzaren “defentsa zintzoa” erakusten zuen masekin gehiago konektatzeko ahalegina izan zen.

Azken hori ulertzeko, ezinbestekoa da langileek eta nekazariak tsarismotik libratu zituen iraultzaren aurrean zuten jarrera kontuan hartzea.

Andréi Gorski. "Borrokan galdua". (1962)



Ez zuten konkistatutakoa galdu nahi, eta formula “derrotista” bat, teorian oso egokia izan arren, ez zetorren bat arlo praktikoan. Klase menderatzaileek axioma inperialistetan oinarritutako defentsa chauvinista defendatzen zuten bitartean, masek iraultzaren defentsan oinarritutako “defentsa zintzoa” adierazten zuten.

Une horretan aldatu zen taktika. Zeregin berria zen jendeari pazientziaz azaltzea bilatzen zuten bakea ez zela gobernu burges baten eskutik etorriko, eta lor zitekeen bake bakarra langile botereak estatua hartzetik eta gobernu benetan iraultzailea eratzetik etorriko zela. Hain zuzen ere, horren erakusgarri ona izan zen Korniloven Putsch-a. Leninek aurrerago argituko zuen boltxebikeak derrotistak izan zirela tsarismoa amaitu arte, baina Lvov-ekin eta behin-behineko gobernuarekin alde batera utzi zutela posizio hori. Hala ere, bi jarrerak zuzenak izan zirela dio: lehenengoa, printzipioak sendotzeko, eta bigarrena, masen oniritzia irabazteko.

Urrian boterea hartu ondoren, ordea, defentsismoa zilegi bihurtu zen. Lehen zeregina egina zegoen, eta hurrengo urratsa esku-hartze inperialaren aurrean iraultza defendatzea zen. Une horretan bai, estatu soviatarren aldeko gerra, gerra aurrerakoi, bidezko eta iraultzailea bihurtu zen. 1918an Brest-Litovskeko itunaren bidez gerra uztea, Alemaniako iraultza-aurreikuspenei buruzko kontu taktikoek eta beste hainbat faktorek eraginda, iraultza boltxebikearen defentsaren hasiera izan zen sobietar lurraldean. Era berean, 1919an Hirugarren Internazionala sortzeak eta horren ondoriozko barne-eztabaidek auzi hori are gehiago garatuko zuten, batez ere trotskisten eta estalinisten arteko polemika batean, derrotismo iraultzailea, kanpismoa edo etengabeko iraultza bezalako kontzeptuak jorratuz, baina gai horiek ez dira artikulu honetan sartzen.

AZKEN ONDORIOAK

Azken batean, gerraren kontzepzio marxistak eraldaketak izan zituen, XIX. mendeko gerra burgesen irakurketa aurrerakoi bat egitetik, XX. mendeko gertaerak inperialismoarekin guztiz lotuta ulertzera. Bira hori, ikusi dugun bezala, Frantziaren eta Prusiaren arteko gerraren azterketa marxianoarekin hasi zen, eta, ondoren, inperialismoa kapitalismoaren fase goren gisa formulatuz garatu zen.

Bigarren Internazionaleko porrot chauvinistak, kolonietatik ateratako apurrez elikatzen zen langile-aristokrazian oinarrituta zegoenak, elementu horiez garbi zegoen Internazional berri bat sortu behar izatea ekarri zuen, eta, sorrera horrekin batera, presente egon zen gerra inperialista gerra zibil iraultzaile bihurtzeko premisa. Hala ere, berezitasun taktikoak beti hartu ziren kontuan, eta boltxebikeek ez zuten zalantzarik izan erretorikaz edo taktika politikoaz aldatzeko, iraultzak hala eskatu zuenean. Horrela, egoera zehatzaren azterketatik abiatuta, gerra inperialista bati aurre egin zioten, gaur egun inguratzen gaituzten elementuak zituen gerra bati, hain zuzen ere.

Zenbait gai zehatzek sor ditzaketen polemikak gorabehera, argi dago leninismoak ulertu duela gerraren izaera inperialista identifikatzean datzala gakoa. Horrek balio du proletarioek jarraitu behar duten bidea marraztu ahal izateko, ez soilik gerra jakin batekin amaitzeko, baizik eta bake iraunkor bat bilatzeko, zeinak utopikoa izateari utziko dion soilik gainbalioaren erauzketan oinarriturik egoteari uzten dionean eta, horren orde, helburutzat ongizatea hartuta jardungo duen sistema sozialista batean oinarritzen denean. ●

Klase menderatzaileek axioma inperialistetan oinarritutako defentsa chauvinista defendatzen zuten bitartean, masek iraultzaren defentsan oinarritutako “defentsa zintzoa” adierazten zuten

Argitalpena

2026KO APIRILA

EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,

erredakzioa

eta diseinua

GEDAR LANGILE

KAZETA

Web

GEDAR.EUS

Sare sozialak

TWITTER ETA

INSTAGRAM

@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua

HARREMANAK@

GEDAR.EUS

Harpidetza

GEDAR.EUS/

HARPIDETZA

Edizioa

ZIRRINTA

KOMUNIKAZIO

ELKARTEA

AZPEITIA

Lege gordailua

SS-01360-2019

ISSN

2792-4548

Lizentzia



Editoreen oharra: Artekako artikuluetan ageri diren
idea, baieztapen eta ondorioak artikulu bakoitzaren
egilearenak dira.

arteka